

...eta!
Kittoa!

2016-IV-1

967 zkia.



Txirrindulariak inoiz baino gertuago



KOMUNITATEEN

ADMINISTRAZIOA

Tel: 943 70 25 40

KOMUNITATEAK

- Auzo komunitaen administrazioa
- Etxebizitzak, garajeak, industriak...
- Jaurlaritzaren dirulaguntzen tramitazioa

AHOLKULARITZA

- Fiskala
- Laborala
- Kontabilitateak
- Aseguruak

Hitzaldia

“BIOMEKANIKA UNITATEA. 3D-ko Laserra zure oinkada eta bizikleta gaineko gorputz-jarrera zuzentzeko”

Apirilak 6

PORTALEA UDAL KULTUR ETXEA

EIBAR, 19:30. Sarrera doan.

Gipuzkoa Policlinicako eta Podoactiva-ko Biomekanika Unitatea Oinkada eta bizikleta gaineko gorputz jarrera zuzentzeko teknologia berria

Guadalupe Izquierdo eta Toni Martínez Gipuzkoa Poliklinikako eta Podoactiva-ko podologoek eta Garikoitz Etxebeste Txirrindulariaren Biomekanika Unitateko fisioterapeutak egiten dituzten ikerketen berri emango digute; Podoactiva-k nazioartean patentatutako teknologia eskusiboa erabiltzen dute oinkadak eta bizikleta gaineko gorputz-jarrera egokitzeko. Euskadin eskaintzen den zerbitzu bakarra da.

Apirilaren 6an, Guadalupe Izquierdo eta Toni Martínez Gipuzkoa Poliklinikako eta Podoactiva-ko podologoek eta Garikoitz Etxebeste Txirrindulariaren Biomekanika Unitateko fisioterapeutak hitzaldia eskainiko dute Portalean, arratsaldeko 19:30an, 3D teknologia erabiliz egiten dituzten ikerketen berri emateko.

Guadalupe Izquierdok oinkadaren ikerketa biomekanikoa egiteak duen garrantzia azpimarratu du, *“ikerketa horiek belaun, mokor eta bizkarrean ditugun trabak oinkada txar batek eragindakoak diren edo ez jakiten laguntzen digutelako. Kirolarien kasuan, ikerketarekin, oinaren alineazio txar bati aurrea har diezaiokegu, eta lesioak ekidin eta errendimendua hobetuko dugu”*.

Toni Martinezek azaldu digu ikerketa zertan datzan: *“Lehenik eta behin esku-ohean bertan egiten dugu oin eta hanken artikulazio- eta gihar-tarteen azterketa. Gero, presio-plataforman oinkada grabatzen dugu, geldirik zein oinez. Ondoren, behelaldeko gorputz-adarraren portaeraren irudiak hartzen ditugu, lasterka eta oinez; azkeneko froga hori pista berezi batean egiten dugu. Datu guzti horiekin oinaren kargapeko molde birtuala egin dezakegu, Podoactivak nazioartean patentatutako hiru dimentsioko eskannerarekin. Eskaner horrek oinaren fisioinformazio baliotsua eskaintzen digu, gero, aurrez egindako ikerketarekin batera, datuak gurutzatu eta ordenagailuan simulazioa egin ahal izateko, oinak barne-zola edo plantilaren gainean zein portaera izango duen ikusteko. Azkenik, hala behar izanez gero, barnezolak egiten dira, eta pazienteak horiek erabiltzen hasten denean errebisioak egiten dizkiogu, dena ondo doala egiaztatzeko”*.

“Oin-zolak faszitisa da gaitz ohiko eta gogaikarrienetakoa, eta tratamendu egokia behar izaten du ondo sendatzeko”, gogoratu du Izquierdok. *“Gaur egun hainbat tratamendu daude, baina hala ere, ezin-*



Garikoitz Etxebeste Txirrindulariaren Biomekanika Unitateko fisioterapeuta, eta Guadalupe Izquierdo eta Toni Martínez Oinaren Unitateko podologoak.

bestekoa da arazoaren arazoia identifikatzea, horrek soluziorik egokiena aurkitzen lagunduko digulako”.

BIZIKLETA ZURE NEURRIRA

Txirrindularien Biomekanika Unitateak ikerketa osoa eta pertsonalizatua eskaintzen die bizikleta-zaleei. Bertako arduradunak, Garikoitz Etxebeste fisioterapeutak, ondorengo azaldu du: *“Ikerketak bi ordu inguru irauten du eta azterketa fisioterapeutikoa egiten dugu; pedalei eragiteko modua eta haren eraginkortasuna aztertzen ditugu, eta baita, txirrindulariak, aulkia, oinak eta eskulekuaren gainean egiten duen presioa ere, posizio egokiena aurkitu ahal izateko”*.

“Horrez gainera”, gehitu du adituak, *“gorputzari egiten diogun 4D analisi zinematikokoaren bitartez, txirrindulariaren posizioa bere osotasunean aztertzen dugu, eta bizikletako posizioaren edozein aldatketak txirrindulariaren eskeletoan nola eragiten duen ikus dezakegu”*. *“Ikerketa horri esker lesioak prebenitu daitezke eta kirolariaren teknika, errendimendua eta erosotasuna hobetu”*, amaitu du Etxebestek.



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:

Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:

erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:

elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Jose Luis Gorostegi, Silbia
Hernandez, Uxue Igarza
eta Haizea Arizaga.

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:

Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez.

DISEINUA ETA

MAKETAZIOA: J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:

Artxiboa

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.100 ale.

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

eskutitzak

Zapatuan denak Eibarren entrenamendura!

Bihar, apirilak 2, "Eibar KE-ren Lagunak" taldeak Arrasateko Atxabalpera, Eibarrek entrenatzen duen zelaira, irteera antolatu du, Villarrealen kontra duen partiduen aurretik taldea animatzeko. Ziur gaude partidu horretan lehen mailari eustea lortuko dutela eibartarrek.

Eibartar guztiak animatu nahi ditugu gure mutilak animatzera etor daitezzen. Arrasatera kotxez jo-

ango gara; goizeko 10:00etan irtengo gara Untzagatik eta 13:00etan itzuli. Atxabalpen jokalariek argazkiak ateratzeko aukera ere izango dugu. Behin Eibarrera itzulita, ardautxo batzuk hartuko ditugu denok elkarrekin.

Zuen zain gaude...

Aupa Eibar!! Gora Eibar!!

Eibar KE-ko Lagunak

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LAGIA.- Ardurabakua, zabarra. Gaztelerazko 'dejado'. "Mutil ona da, baiña oso lagia bere gauzekin".

LAGIA LAGA.- Zerbait erabat utzi. "Lagia laga, gehixago ez eban erre, naiz da takorrixa merkatu".

astean esanak

"Terrorismo yihadistaren mitoak bazterten hasi behar dugu. Estatu Batuetan 3.000 aldiz errazagoa da herrikide batek beste bat hiltzea, ideologia motibaziorik gabe, yihadista batek hiltzea baino. Gainera, S-11koa gertatu eta gero, AEB-etan izan diren atentatuetakoa terrorista islamiarrak oso jende arrunta izan da: bertan bizi zirenak, inor ez da kanpotik etorri. Ikerketek erakutsi dutenez, terrorista horien heziketa maila ez dago batz bestekoaren azpitik eta besteek baino buruko arazo gutxiago dituzte"

(PETER BERGEN, TERRORISMOAN ADITUA)

"Amaren eta aitaren funtzioak ez dira berdinak eta elkarren kontra daude. Amarena pertsonaren inguruan zentratzen da: elikadura, osasuna, zaintza... Horrek umeengan konfiantza sortuko du. Eta amak umeari zerbait eskatzen dionean umeak kasu egiteak balio sentimendua sortzen du biengan. Besteen eskariak asebetez, norbera ere asebeteta gelditzen da: hori da ideia. Aitzitik, aitarena arauen onarpenean zentratzen da, arauok errespetatuz maitatua eta onartua izateko. Aiten egitekoa lehiarekin dago lotuta: arauak onartu egin behar dira, inork inori eraso egitea eragozten baitute arauak"

(M^o JESUS IZQUIERDO, SOZIOLOGOA)

"Pertsona batek bederatzit objektu galtzen ditu gutxi gorabehera egunero. Eta horiek berreskuratzeko ordu laurden inguru erabiltzen du. Ez da alzheimerra, bakarrik ezin garela kontzentratuta egon 20 minututik gora. Despistea, gainera, bizirauten laguntzen digun mekanismoa da, kezka sortzen diguten pentsamendua bazterten lagunduz. Psikoanalistek diotenez, despisteeke barne konfliktua ere adierazi dezakete eta baita aldaketa baten beharra ere: esaterako, etxeko giltzak askotan galtzen dituenak etxer aldatzeko desio inkontzientea izan dezake... edo bikotea aldatzekoa"

(ANTONELLA BRANDIMONTE, PSIKOLOGOA)



I. Gin Tonic lehiaketa apirillian

Euskeraz Primeran! kanpaiñaren barruan, ...eta kitto! Euskara Elkarteak I. Gin Tonic Lehiaketa antolatu dau apirillaren 15etik 17ra, kanpaiñarekin bat egin daben tabernarixen artian. Asteburu horretan, barixaku, zapatu eta domekan, lehiaketan parte hartuko daben tabernetako gin tonic-ak dastatzeko eta baita botua emoteko aukeria izango dabe bezeruak. Horretarako tabernetan bozketa-kupoia eskura izango dittue. Bertan, hiru establezimendu ezberdiñetako zigillua jarri biharko dabe (3 gin tonic desberdin probatu dabela egiazatzeko) eta gehixen gustatu jakuen gin tonic-ari botua emongo detse. Bozketan parte hartzen daben artian asteburu pasa bat zozketatuko dabe. Bozketa horretatik urtengo dabe 3 finalistak eta finala apirillaren 22xan jokatu da, Untzagan, 20:30etik aurrera. Finalistak epaimahaixaren aurrian preparamu biharko dittue gin tonic-ak, Oihan Vegak gidatu eta animatuko daben ekitaldixan. Irabazliak 300 euroko sarixa jasoko dau eta 2. eta 3. sailkatuak, barriz, koktelak egitteko kit bana. Lehiaketan izena emoteko epia apirillaren 5ian amaittuko da (943200918 telefonuan edo elkarte@etakitto.eus helbidian). Informaziño gehixagorako www.etakitto.eus helbidian begiratu leike.

Osasun Ikasgelen ziklo barrixa martxan

Jende mordia jua zan oin dala egun batzuk Javier Sanchez zirujanuk Portalean emon eban hitzaldira eta batutakuak arretaz jarraitu zittuen barizeen inguruan emon zittuan aholku eta azalpen guztiak. Saio horrekin ekin zetsan Poliklinika Gipuzkoak bere Osasun Ikasgelen ziklo barrixari. Egitasmuaren barruan bost hitzaldi eskinduko dittue guztira eta hurrengua datorren astian, eguaztenian izango da, 19:30xetan. Oñaren Unidateko Guadalupe Izquierdo eta Toni Martínez podologuak eta Txirindularixen Biomekanikaren Unidateko arduraduna dan Garikoitz Etxebeste fisioterapeutak jardungo dabe berbetan, "Biomekanikaren Unitatea. 3D laserra zure oinkatzea eta bizikletan daramazun posizioa zuzentzeko" hitzaldixa eskintzen. Saio guztiak duan dira eta nahi daben guztiendako zabalik dagoz.



asteko
1.608
datua

lagun pasatu ziran udal-artxibotik 2015. urtian eta 2.012 konsultari erantzun zetsen aurrez aurre zein posta elektronikoz. Dokumentuen 10.000tik gora kopixa egin zittuen eta hainbat udal-bulegoetatik ekarritako 2.747 espediente barri sartu ziran.

Bi ziñegotzik kargua laga dabe

Eneko Andueza (PSE-EE) eta Itoitz Garcia-Anton (Irabazi) Eibarko udaleko ziñegotzixak kargua lagatzeko erabagixa hartu dabe eta martitzenian egin zan plenuan emon eben horren barri modu ofizialian. Garcia-Antonek kargua "arrazoi pertsonalengaittik" laga dabela emon dau aditzera eta, oindiok konfirmatzeke daguan arren, seguruenik Equo-ko Maria Jesus Agirrek ordezkatu da. Anduezak, bestalde, eguazten goizian prentsaurrekua emon eban, Miguel de los Toyos alkatia-

rekin batera, kargua lagatzera bultzatu daben arrazoia azaltzeko. Esandakuari jarraituta, "azken hauteskundietan zerrendan nun neguan ikusitta, bigarren lerruan egoteko nere asmua aurreikusten zala pentsatzen dot, baiña alderdixak botu-kopuruan izandako gorakadak neu be ziñegotzi izatia eragin eta kargua onartu neban, gustora gaiñera. Halanda be, Eibarko Sozialisten burua izatiak eta, gaiñera, Batzar Nagusixetan egotiak ziñegotzi izateko tarte gitxi lagatzen deste eta horregaittik erabagi dot ziñegotzi izatiari lagatzia, sentimentalki penia emoten badesta be". Anduezak urtiak emon dittu udaletxian, lehelengo Arriolaren idazkari moduan urte bi eta erdi emon zittuan biharrin eta ondoren ixa beste zortzi urte egin dittu ziñegotzi karguan.



Onartu dabe udal aurrekontua

Martxuaren 18xan onartu eban udalbatzak 33.298.125 euroko udal aurrekontua. 2016rako aurrekontu proposamenaren in-

guruko billeretan oposiziñoko hiru alderdixekin adostasuna lortu eta gero, aurreikusitakuari jarraituta, kontrako boto barik emon zetsen behin-behiñeko onarpena. Erreklamaziñuak aurkezteko azken eguna apirilakren 13 izango da eta nahi dabena aurrekontuaren inguruko informaziño guztia eibar.eus webgunian eskuragarri topauko dau. Bestalde, aurrekontua onartzeko plenuarekin ekin zetsen osoko-bilkuren zuzeneko emanaldixeri eta aurrerantziaren pleno guztiak internet bidez ikusteko aukeria egongo da, udalaren webgunian sartu eta horretarako prestatu dabena atalaren gaiñian klikatuta.



Pleno guztiak Internet bittartez zuzenian jarraitzeko aukeria egongo da hamendik aurrera, eibar.eus webgunian sartuta.

ADECAP-i buruzko erakusketia museuan

Ehiztari eta Arrantzaleen Babeserako Elkartek (ADECAP) 25 urte bete dittuala eta, alkarte horrerik eskindutako erakusketia zabalduko dabe datorren asteko eguenian Armagintzaren Museuan. Apirilaren 30era arte ikusgai egongo dan erakusketan 1990. urtian Durangon sortu zan alkartiaren historixari zein bere jardunari lotutakuak ikusteko aukeria egongo da, bestiak beste.



autuan


DENDARIXEN EROSKETA-BONUAK

Eibar Merkataritza Gune Irekiak udaberrixari ongi-ettorrixa emoteko kanpaiñia abiarazi dau, 40 euro pagauta 50 euroko gastua egitteko aukeria emoten dabena erosketa-bonuak eskintzeko. Bonuen salmenta gaur hasi da, Eibar Merkataritza Gune Irekixaren buleguan (Untzaga, 7xan; Artola jatetxiaren aldemanian). Bonuak apirilaren 7ra arte erabiltzeko aukeria egongo da, "Hemen Bai" kartela daken berrehun establezimendu baiño gehixagotan zeozer erostian.

UDALTZAIÑEN LAN-POLTSA

Udalak Udaltzangoko agenteen lan-poltsarako deialdixa egin dau eta hautapen-probetan parte hartzeko eskaerak apirilaren 18ra arte aurkeztu leikez. Bete biharreko baldintzen zein bestelakuen inguruko informaziño guztia eibar.eus webgunian eskuragarri dago.

Beñat Intxausti · Leire Olaberria



Sekulako puntua!

emakumeenbira.eus eta itzulia.eus #EUSberdinak dira. EUSberdinu zu ere tropeletik eta sortu zure .eus domeinu-izena.

15
euro

Apirilaren 1etik 17ra
prezio berezian.



+34 943 085 051

info@domeinuak.eus

www.domeinuak.eus



Deparkelen aldeko pintxo-potia

Aurreko urtietan egindakua-
ren bidetik, hillaren 11n mundu maillan Parkinson gaitza gogoratzeko eguna izango dala-eta, aurten be Deparkel Debabarrena Parkinson Elkartearen aldeko pintxo-potea antolatu dabe apirillak 16rako, Untzagan (jubilauean aldian). Txikituan ibiltzeko orduetan, eguargidixan (12:00etatik 15:00etara) eta arratsaldian (19:00etatik 21:30etara) zabalduko daben txosnan pintxuak eta edarixak eskinduko dittue. Antolatzailliak aurreratatu deskuenez, sasoiko

produktuak erabillita bospasei pintxo ezberdin preparatzeko asmua dake eta trago bakotxarekin bana emongo detse jendiari, musutruk. Edarixak euro bi (urteko ardaia, freskagarria, mostua edo ura) edo hiru (garagardua) balixoko dabe. Horrekin batera Parkinson gaitzasunaren eta Deparkel alkartiaren informaziñua eskintzeko mahaxa be ipiñiko dabe. Batzen daben dirua alkartiak gaixueri zein famelixeri emoten detsazen zerbitzuak pagatzen laguntzeko erabilliko dabe.

Zumba Maratoia preparatzeko biharrian

Iaz lehenengoz egin zan Zumba Maratoiak euki eban arrakastarekin animauta, aurten bigarrenaz antolatze-
ra animau dira eta horretarako biharrian hasitta dagoz. Aurten ekitaldixa maiatzaren 14an izango da, Astelena frontoian eta goizetik. Iaz batutako dirua Gipuzkoako Kirol Egokitu alkartiari laguntzeko erabilli zan eta aurten, barriz, diagnostiko bariko gaixotasunak dittuen umieri laguntzeko Eibarren oin dala gitxi sortu daben AFESD alkartiari emoteko asmua dake. Antolatzailliak azaldu dabenez, "oin arte bakarrik famelixa bik osatzen dabe alkartia, baiña jende baxari zabalik dagoz eta ekitaldixak, dirua batzen laguntziak gain, jendiari alkartiaren barri emoteko be lagungarria izango dala pentsatzen dogu". Ekitaldixaren inguruan sortzen doian informaziñua jaso nahi dabenak, Facebook-en dauka horretarako aukeria (www.facebook.com/ZumbathonEibar).



Pagatxakuak Alfa-Arten bisitan

Martxuaren 16xan Pagatxa andren alkarte-
kuak Alfa Arte enpresara bisitan juan ziran eta, bide batez, taillarreko instalaziñuak, musea eta beste toki interesgari batzuk bertatik bertara ikusi zittuen. Alkarteko ordezkariak esan dabenez, "oso pozik" ibilli ziran eta, horregaittik, enpresan egin zetsen harrera ona eskertu nahi detse.

...eta kitto!-ren urteko batzarra

Martxuaren 17xan egin eban ...eta kitto! Euskara Elkarteak Urteko Batzar Nagusixa eta, batzarrera juandako bazkidien oneritziarekin, 2016rako bazkide-kuotak iazko berdinak izatia onartu zan: 16 urtetik beherakundako 5 euro; langabe, ikasle, jubilatatu eta etxeandrendako 15 euro; eta bihargiñendako 45 euro. Horrekin batera, iazko zuzendaritzari eutsiko jako aurten be: Ainara Argoitia (presidentia), Moises Gonzalez (presidente-ordia), Maider Aranberri (idazkarixa), Marisol Uriarte (diruzaiña) eta Ana Aizpurua, Leire Alberdi, Aitor Alberdi, Julian Fernandez, Jon Mardaras, Ekaitz Olaizola eta Ane Urkiola (bokalak).



Urteko batzarrak bazkidien oneritziak izan zeban.

Eibarko Artisten Elkarteak, urtero bezala, erakusketa antolatu du Portalean. Aurtengoa berezia izango da, ordea, elkarteak 50 urte betetzen baititu. Erakusketa apirilaren 8tik 30era arte egongo da zabalik, margolan, eskultura, argazki eta askoz gehiagoz osatuta. Ezkondu zenetik Eibarren bizi den Jose Agustin Larrañaga markinañarrak Eibarko Artisten Elkartearen presidente lanetan dihardu azken lau urteotan. Artea eta pilota mundua dira bere zaletasun nagusiak.

JOSE AGUSTIN LARRAÑAGA (artista): "Lehen gehiago baloratzen ziren margolanak"

- Nola antolatu duzue erakusketa?

Artista bakoitzak hiru obra jarriko ditu ikusgai: margolanak, argazkiak, eskulturak... Bazkide batzuk hasieratik esaten digute zer erakutsi nahi duten, baina beste batzuk koadroak muntatzen gaudenean datoz obrekin. Baina horrelako gutxi izaten dira; jadanik hasi da jendea obrak ekartzen Pagaegin dugun lokalera. Honen ondoren Durangon ere egingo dugu beste erakusketa bat, baina gela txikia denez bertakoa, artista bakoitzak obra bakarra erakutsi ahal izango du. Eta gero, apirilaren 10ean, bazkaria antolatu dugu Untzaga hotelean. Sarrerak apirilaren 8tik aurrera egongo dira salgai hotelean bertan.

- Zenbat bazkide zarete elkartearen?

Gaur egun 170 bazkide gara. Batzuk sortzaileak dira, beste batzuk arteaz disfrutatzea nahi dute soilik; elkartearen nahi duena errentzat da. Urtean behin aire zabaleko marrazki lehiaketa ere antolatzen dugu, nahi duenak parte hartzeko eta jendea elkartera gerturatzeko. Baina eibartarrik ez da animatzen. Gazterik ere ez. Umeak bai, guraso edo irakasleek behartuta edo, 30 bat inguru egoten dira. Baina gazterik bat ere ez. Badi-rudi 18 urtetik aurrerakoek marrazteari uzten diotela, ikasketak direla eta, edo; beste gauza batzuk dituzte buruan.

- Elkartearen presidente izanda, zertan dazkazu zure lana?

Lau bat urte daramatzat presidente, baina aurretik 23 urtez diruzaina izan nintzen. Orain ere ibiltzen naiz diruzaintzan; presidente moduan denetik apur bat egiten bai-

"Gaur egun 170 bazkide gara. Batzuk sortzaileak dira, beste batzuk arteaz disfrutatzea nahi dute soilik; elkartearen nahi dutenentzat da"

tut: udaletxearekin harremanak, ondoren datozenei elkarteak nola funtzionatzen duen erakutsi, urteko balantzea egiten denean ere hor egiten naiz. Ordu asko pasatzen ditut lanean.

- Presidentea izateaz gain, artista ere bazara...

Margolaria naiz; Donostian, Durangon eta beste herri batzuetan erakusketak egin izan ditut. Izatez ingenieria teknikoa naiz, eta hortik bizi izan naiz. Baina jubilatzean pinturan sartu nintzen eta erakusketak egiten hasi nintzen, koadroak saltzeko. Orain dela 25 urte edo bai saltzen nintuen, baina orain ez. Joan den urtean bakarra erosi zidaten, baina ez da ohikoa. Nik ikusten dudana da jendeak beste modu batzuetan gastatzen duela dirua: bidaietan, bazkarietan. Lehen gehiago baloratzen ziren margolanak. Baina ez Eibarren bakarrik; Bilbon, esaterako, galeria asko itxi dituzte, ez delako saltzen.

- Zer eskaintzen die elkarteak artistei?

Pagaegi kalean lokala dugu, udalarena. 70 metro karratu edo izango ditu. Kideak bertara joan daitezke lanera. Batez ere tailugileak joaten dira, euren lana edonon ezin baitute egin, zarata dela eta goikoak behin baino gehiagotan kexatu dira, baina ezin dugu ezer egin. Nora joango gara bestela? Lokala udaletxearena da eta beraz, uzten diguten bitartean, bertan egongo gara. Orain 6 tailugile eta pare bat margolari daukela uste dut, eta emakumeak ere hasi dira animatzen.

- Lanerako lokalaz gain, eskaintzen duzue beste ezer?

Bai. Txangoak ere antolatzen ditugu, urtean bi. Lehena ekainean izaten da, egun bakarrekoa; larunbatetan, orokorrean. Eta bestea udazkenean, hiru eguneko, ostira-

letik igandera. Espainiako iparralde dena bisitatu dugu; Soria, Toledo, Leon, Zaragoza, Huesca Aurten Lleidara joateko esperantza dugu; Tarragona eta Lleida besterik ez zaizkigu geratzen bisitatzeko. Normalean autobus bi betetzen ditugu, eta oso gustura ibiltzen gara. Giro ona egoten da.

- Arteaz gain, baduzu beste zaletasunik?

Pinturaz gain zesta puntari buruz idazten dut, eta egun sei liburu ditut argitaratuta. Azkenekoa joan den udan atera nuen. Ni Markinako naiz, eta hor beti egon da pilotarako zaletasun handia. Markinatik pilotari asko joan ziren Ameriketara bere garaian. Orain dela 25 urte 16 frontoi zeuden Ameriketara, eta frontoi bakoitzean 40-45 pilotari zeuden; guztira 700 bat pilotari egongo ziren. Denak ez ziren hemengoak, baina gehienak bai. Horrek diru pila ekartzen zuen hona. Eta orain bi enpresa baino ez daude hemen; bien artean 50 pilotari bakarrik izango dituzte. 1901ean ireki zen La Habanan lehen pilotalekua, eta aktibo egon zen Fidel Castrok itxi zuen arte. Frontoi honen bigarren urtean zazpi pilotari eibartar zauden eta markinar bat. Eibarko Txikito, bere sasoian pilotari onena izan zena, eibartarra zen. Haren liburua idatzita daukat, baina udaletxeak ez zuen ontzat hartu eta beraz, hor daukat, zain. Gallastegi zena ere eginda daukat, baina amaitzen nengoenean udaletxeak berari buruz beste biografia bat atera zuen. Hala ere, orain beste biografia batzuekin nago.



Edozein egunetan Dos de Mayo kaletik pasiatzen goiazela amama kuadrilla bat pegoretako batetik alkarrekin urtetzen, umore onian hurrengo egunera arte agurtzen ikusiz gero, gurian iñor gitxi harrittuko da. Izan be, Goi Argi alkartia eibartarrondako oso ezaguna da, betidanik ezagutu dogun zeozer, eta gutariko gehixenak ezagutzen dogu alkartian ibillittako amamaren bat, gehixago ez bada. Baiña guretako horren "normala" dan hori ez dabe bardin ikusi hamendik kanporako toki askotan, ezta beste sasoi batzuetan be.

Gaur egunian Goi Argiko bazkide gehixenak urtietan aurrera egin daben amama eta birramamak dira eta, sarritan siñestia kostatzen bajaku be, euretako askok 80-90 urtiak pasauta dittue. Horretako bat martxuaren 19xaz geroztik alkarteko presidentia dan Karmen Apellaniz dogu. Sasoi betian, kalian gora eta beheara ibilli arren, 84 urte dakaz eta hórretako gehixenak, 60 bat urte ,Goi Argixan emon dittu. Zelan sartu zan galdetuta barrezka erantzun deskunez, *"orduan sasoi hona etortzen giñanak neska gaztiak giñan, ni 24 bat urterekin sartu nintzan Goi Argi eta bestiak be nere moduan, gazterik hasi ziran etortzen. Baiña urtiak aurrera egin ahala geu be zahartzen jua gara eta gaur egunian bazkide gehixenak arratsalde pasa, kartetan jokatzera etortzen diran amamak dira"*.

Hori ikusitta, alkartiari haize barrixa emoteko premiñia ikusi eben eta, horregaittik, aurreko martxuan urteko batzarra egin dabenian bazkide gaztiaguak zuzendaritzan sartu di-



GOI ARGI

65 urte ixotuta daroiazzen argixa

ttue, "moduren batian alkartiak aurrera segiduko dabela ziurtatziarren eta lekukua gu baiño gaztiaguak diraneri pasatzen juateko".

Errelebo aldaketia sosiguz-sosiguz egitten juango dirala kontau deskue kide barrixetako bik, Lurdes Bonetak eta Esther Alonsok. Lehelengua oin dala pare bat urte egin zan bazkide eta bigarrena pixka bat lehenago, oin dala lau urte inguru. Kasu bixetan bazkide egitteko arrazoi nagusixa *"alkartiari laguntzia"* izan da. Izan be, urteko kuota 50 eurokua da eta, za-

hartzan jua ahala gero eta bazkide gitxiago eguazela ikusitta, *"Goi Argi alkartiari laguntzeko, ez desagertzeko egin giñan bazkide, arratsaldero etortzeko asmorik euki barik be"*.

Astian sei egunetan, zapa-tuan izan ezik beste egun guztietan, zabaltzen dabe alkartia eta, egunaren arabera gorabehera txixak badagoz be, bataz beste 100 lagun baiño gehixago ibiltzen dira astero. Kontatzen dabenez, *"gehixenak kartajokuan pasatzen dabe denporia, lagunekin batera merienda hartzen dabe, euren kon-*

tuen inguruan berbetan... hona etortziak bizipoza emoten desela diñue gehixenak eta, egi-xa esateko, hala dala pentsatzen dogu geuk be".

1951ko San Jose eguna

Eibarren ez eze, hamendik kanpora be Goi Argi instituziñua dala, horretan zalantzarik ez dago. Mercedes Kareagaren eskutik sortu zan Goi Argi alkartia 1951. urtian. Espaiña osuan bakarrik andrazkuak sartzeko lehen alkartia izatiak, baiña, traba mordua ekarri zetsazen. Karmen Apellanizek kontau deskunez, Toribio Etxebarria kaleko 19xan, lehelengo pisan daguan alkartia zabaltzeko moduan prest egon arren, urte bi pasau bihar izan zittuen erabilli barik, atiak zabaltzeko permisirik ez zetsen emoten eta. Izan be, orduan sasoi hona etortzen giñanak neska gaztiak giñan, ni 24 bat urterekin sartu nintzan Goi Argi eta bestiak be nere moduan, gazterik hasi ziran etortzen. Baiña urtiak aurrera egin ahala geu be zahartzen jua gara eta gaur egunian bazkide gehixenak arratsalde pasa, kartetan jokatzera etortzen diran amamak dira".



Urtian egun berezixenak Aratoste Martitzena eta San Jose izaten dira eta beti musika eta bestelakuekin ospatzen dittue.

tasun billa hasi zan. Baita laguntza hori lortu be eta, gaiñera, gizonezko biren eskutik: Jaime Font y Andreu obispuak eta Esteban Orbea orduko alkatiak, bixak jardun eben alkartia zabaldu ahal izateko tramiatiak arintzeko harixak mugitzen eta, horri esker, azkenian zabaltzia eta martxan ipintzia lortu eben. Ondo kostata, 1951ko San Jose egunian inauguratu eben azkenian Goi Argi alkartia.

Andren formaziñorako

Lehelengotikan segidu zetsen andrazkueri formaziñua emoteko asmuari, horretarako sortu eben eta. Izaera soziala ez eze, alkartia sortu zanian erlijioak be garrantzi haundixa euki eban. Apellanizek oso ondo gogoratzen ditte orduan sa-

soian emoten zittuen kursuak eta hórretzek orduan sasoiko andrendako zeken garrantzixa: *"Sukaldatzen, arropak plantxatzen... etxe-barrruko biharretarako pre-paratzeko ikastaruak izaten ziran, neska gaztiak pozarren etortzen ziran holako kontuak ikastera, hamendik kanpora horretarako aukerarik ez eguan eta. Andrak ez eze, gizon mor-duak eskertu zetsen Mercedesi andren alde egindako biharrira. Sasoi hartan Goi Argi alkartiak zelako garrantzixa zekan gaur egun, oingo perspektibatik, ulertzia gatxa izan leike, baiña benetan be oso inportantia izan zan, pentsau holako toki*



1951ko martxuaren 19xan inauguratu eben Goi Argi. Erretratua egun horretan etaratakua, da sorreran parte hartu eben andrekin.

bat egon ezian andrazkuak euren artian alkartzeko, berba egitteko, gauzak ikasteko... horrelakua egitteko aukerarik ez zekela, orduan ez ziran tabernetan-eta ibiltzen. Horregaittik Eibarko andrak pozarren hartu eben euren bakarriz izango zan tokixa zabaltzia eta urtietan ehundaka emakume ibilli ziran hamen alkartian atzera eta aurrera, kursuetan erakusten zittuenak ikasten".

Maria Angeles Zulaica be ideia horrekin bat dator alkartiari buruz idatzi eban artikulubatian jasota dagan moduan: *"Beti be orduan sasoiko gizartia zelakua zan, horrek gauza zelan baldintzatzen zittuan kontuan izan bihar da baloraziñuak egiten hasi baiño lehen. Andraz-*

kuen aisialdirako alkartia bazan, baiña horren gaiñetik eta batez be andren formaziño eta sozializaziñorako alkartia zan: ikastaruak, hitzaldixak, sukaldaritzaklasiak... Goi Argiko andrak izatera sozialeko hamaika jardueratan (San Andres zaharren egoitzan egin ahal izateko martxan ipiñi eben 'Operación ladrillo' famosuan, misiñuetarako diruak batzen...) lagundu eben".

Eta gaiñera, Apellanizek esplikau deskun moduan, *"denporiakin horrelakuen arduria instituziñuak edo beste erakunde batzuk hartu eben bere gain, baina sasoi hartan gauzak oso bestelakua ziran eta, holako laguntasunik jaso ezian, ez leukie aurrera egitteko modurik izango".*



30 urtitan egunero alkartzen dira lagunak, merienda hartu eta arratsaldia julepian jokatzeko pasatzeko.



Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>24 orduko zerbitzu iraunkorra 943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea GRUPO Funeuskadi</p>	

NATUR HOUSE

Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA



Toribio Etxebarria, 22
Tel. 943 108 020 Mug. 677 551 850

667 54 89 16 (Ritxar) kolorlan@hotmail.com



KOLORLAN
 P I N T U R A K

EibarKlik lehiaketako irabazleak

Indianokua gaztelekuak antolatutako EibarKlik lehiaketa agurtu dute eta aurtengo irabazleak erretratuan ikusten dituzuen hiru neskak, Alba Garcia, Andrea Luengo eta Lara Salguero, izan dira eta, beraz, euren jaso dute gaztelekuko arduradunek irabazlearentzat prest zuten sari-sorpresa. Ezetx asmatu zer zen!



Aurreko ikasturteetan bezela, lehiaketa parte hartu duten gazteei hainbat argazki egitea agindu diete, horretarako gaiak eta tokiak eman eta gero. Aurtengo ediziorako aukeratu duten protagonista edo gai nagusia gaztelekuko logotipo berria izan da. Antolatzaileek azaldutakoari jarraituta, "gure irudi berriarekin katilu bat diseinatu dugu eta, lehiaketa martxan egon den bitartean, astero argazkia egin diogu Eibar-ko hainbat tokitan. Otsailaren 12an guk egindako lehen argazkia gure Instagramera igo genuen eta gazteei astebeteko epea eman genien, hiruzpalau lagunek osatutako taldeetan, guk argazkia egin genuen toki berean euren talde argazkia edo selfie-a egiteko eta guri helarazteko".



Proiektuen Azoka

Hurrengo asteburuko zapatuan, apirilaren 9an Proiektuen Azoka egingo da Biharran-en (Ubitxa, 16), ideiak, baliabideak eta tresnak partekatze topaketa fisiko eta birtualak sustatzen dituen (K)idea-ken eskutik. Impact Hub Donostia eta DSS2016-k antolatu dute ekitaldia, Biharran, Ekingune eta Eibarko udalarekin elkarlanean eta asmoa "gizarte-inplikazioko proiektuak sortzea eta hobetzea" dela diote.



Ume, gazte eta, orohar, "jakin-mina eta ikasteko gogoia dutenentzat" antolatutako ekimenak egun osorako egitaraua dauka, 09:15ean hasi eta 18:15ean amaituta. Norbaitek bere proiektua aurkeztu nahi badu,

proiektuenazoka.org webgunean eman beharko du izena. Eta, proiekturik ez izan arren, plaza edo azokan parte hartu nahi izanez gero, ekingune@ekingune.com edo donostia@impacthub.net helbidera idatzi.



KOLDO MITXELENA ZUMARAN
2. URTEMUGA (2014-04-01)

*Urak dakarrena urak daroa,
zuk emandakoa gurekin geratzen da.*
ETXEKUAK

Energia Berriztagarri etako praktikak udaletan

Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolan Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako Gradua egin duten ikasleek lau udaletan praktikak egingo dituzte aurtengo udan. Luis Intxauspe Udalbiltzako lehendakariak eta Jose Ignacio San Martin EHUko Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako koordinatzaileak berriki sinatu duten hitzarmenari esker. Akordioa sinatzeko ekitaldian aditzera eman zuten, ikasleek Udalbiltzako kide diren lau udaletan energia efizientziaren inguruko azterketak egingo dituzte. Praktika horietan sei ikaslek hartuko dute parte eta beste horrenbeste proiektu bultzatuko dituzte: Atxondon (Bizkaia), bertako eskolaren efizientzia energetikoaren inguruko azterketa egingo dute, indarguneak eta ahulguneak aztertuz eta efizientzia hobetzeko aukerak proposatuz. Hernanin (Gipuzkoa), berriz, alde batetik herriari biomasa sistema ezberdina martxan jarri eta horiek bertako ezpalarekin hornitu ahal izateko beharrezko azpiegituraren inguruko azterketa egingo dute eta, bestetik, udal eraikin publikoen azterketa ter-

mografikoa egingo da, galtzen duten beroaren inguruko dokumentazio grafikoa biltzeko asmoz. Aramaion (Araba), udalaren baso sail publikoan dauden egur baliabideen azterketa osatuko dute ikasleek eta bertatik zenbat energia lor litekeen kalkulatu beharko dute. Eta Orexan (Gipuzkoa), berriz, herriko gazta kooperatibaren efizientzia energetikoa aztertuco dute, energia kontsumoa-



Goian, Luis Intxauspe eta Jose Ignacio San Martin elkarlanerako hitzarmena sinatzen. Behean, lehen promozioiko ikasleak.



ren galera nagusiak identifikatzeko eta horiek murrizteko proposamenak eginez. Horrekin batera, herriko zentral hidroelektriko zaharra berriztatu eta martxan jarri ahal izateko aukerak aztertu eta horretarako proposamenak egin beharko dizkiote ikasleek udalari. Elkarlanarekin pozik daude eta

"emaitza onak besterik ez duela emango" argi daukate. Diotenez, "ikasleak unibertsitatean jasotzen ari diren jakintza osatu ahal izango dute udaletan, unibertsitateak bideak zabalduko dizkie ikasleei formakuntza horretan eta, jakintza eta formakuntza horiek gure herrietan energia burujabetza-

ren inguruko urratsak diren neurrian, denok irabaziko dugu". San Martinek, berriz, Udalbiltzak emandako aukerarengatik esker ona azaldu zuen: "Izan ere, lankidetzak akordioak gradu amaierako lanaren proposamenak errealitatean gauzatzeko modua ekarriko die gaur egun Eibarren Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako Gradua ikasten ari diren ikasleei. Alde horretatik, ikasleek praktikan jarri ahal izango dituzte efizientzia energetikoarekin eta garapen iraunkorrarekin erlazioatutako teknologia sailean jasotako ezagutza teorikoak".

ARTE BATXILERGOA, AZITAINGO LA SALLEN ERE

Gaur egungo hezkuntza-sisteman hiru batxilergo ezberdin eskaintzen dira: Zientziak eta Teknologia batxilergoa, Giza eta Gizarte zientzien batxilergoa eta Arte batxilergoa eta ikasleek hiru horietatik zein ikasi nahi duten erabaki behar izaten dute 16 urterekin. Orain arte Artistikoa herritik kanpora joan barik ikasi nahi zutenek Ignazio Zuloaga institutura joan behar zuten nahitaez, Eibarren batxilergo hori eskaintzen duen ikastetxe bakarra hori izan delako, baina datorren ikasturtean gauzak aldatuko dira. Izan ere, badirudi artistikoak ikasleen artean geroz eta arrakasta handiagoa lortzen ari duela. Hori ikusita, 2016-2017 ikasturtean Azitaingo La Sallen ere ematen hasiko dira, horrela arlo horretan dagoen eskaerari erantzuteko asmoz.





osasun DOSIAK



iñaki elortza
BOTIKARIA

Azukrea osasuntsu?

Gaurkoan azken aldian jende artean zein komunikabide eta zientzialarien artean, giza elikaduraren alorrean gehien aipatzen den gaietako bati helduko diogu. Azukrea osasuntsua al da? Adikzioa sor dezake?

Hainbat ikerketek erakusten dutenaren arabera, menpekotasuna sor dezake. Ikerketen artean ezagunenetakoa Bordeleko unibertsitatean burutu dutena dugu. Bertan arratoiek, botoi batzuei saktuta, ur azukreduna edo zuzenean zainetara doan kokaina kontsumitzea aukeratu dezakete. Kokainaren adikzioa sortzeko gaitasuna ezagutzen dugun arren, arratoi hauen 94%ak azukrearen botoia saktzen du behin eta berriro.



Osasunean sor ditzakeen kalteen inguruan ere, ia eguneroko agertzen da ikerketa berriren bat. Horietan azukrea, gero eta neurri txikiagotara gainera, osasunarentzat kaltegarria dela erakusten da. Kalte horien artean, gibelego toxizitatea, intsulinari erresistentzia, minbizia, II motako diabetesa, obesitatea etabar agertzen dira. Beti ere, elikagaiei gehituta azukreari buruz ari garela

argitu behar da, eta ez elikagai hauetan dauden azukre naturalei buruz.

Gai horiek argitzeko hainbat erreportaje edo dokumental agertu dira azken aldian. Horietan, azukrearen inguruko lobbyak produktu honen arriskuak nola estaltzen saiatzen diren ere ikus dezakegu. Interesgarrietakoak, Estatu Batuetako "Fed up" edo Espainian egin berri den "Dulce Adicción" ditugu.

Desio sexuala: mitoak

Gaur egun desio sexualari buruzko mito ugari izaten jarraitzen dugu eta ondorio faltsuetara eramaten gaituzte. Horregatik ezinbestekoa da mito horiek adimen kolektibotik ezaizte. Adibide batzuk:

- **Gizonek desio sexual handiagoa dute, gehiago pentsatzen dute sexuan. FALTSUA** Desio sexualaren gradua ez da generoaren araberakoa; desberdintasunak pertsonalak dira. Emakumeek sexuarekin

amets egiten dute, baina ez dute horrenbeste kontatzen. Desberdintasuna edukietan egon daiteke: gizonezkoen desioan genitalek pisu handiagoa dute, eta emakumezkoetan fantasiak osagai afektibo-erotiko handiagoa dauka.

- **Emakumea monogamoa da, baina gizona ez. FALTSUA** Uste hau kultura matxista baten emaitza da. Desio sexuala amodio-harreman baten baitan kanalizatzeko hezitua eta pre-

arantza alvarez

PSIKOLOGOA
SEXOLOGOA

eta egiak

sionatuak izan dira emakumeak. Gizonak, aldiz, ahalik eta esperientzia gehien izateko txalotuak izan dira. Gizona leiala ez bada, bere gizaizaerarengatik dela onartzen da ia, ezin izan delako kontrolatu. Emakumearen leialtasun eza, berriz, ñabardura desberdin batekin ikusten da, suposatzen baita berak ez diola erantzuten inpultso biologiko kontrolaezin bati, gehiago kriminalizatzen da. Berriro ere neurtzeko modu bikoitza.

- **Desio sexualak adinarekin behera egiten du, batez ere emakumeena. FALTSUA** Adinarekin urgertzia genitala baxuagoa da, isuritzeko edo



orgasmora iristeko beharra txikiagoa da. Baina harreman sexuala ez da koitoea eta orgasmoa soilik; intimitatea, afektua, laztan egitea ere bada. Beste pertsona gertu sentitzeko desioa ez da adinarengatik txikitzen. Txikitzen da bikotearen artean harreman txarra dagoelako edota errepresio sexualean oinarritutako iraganarengatik, sexua bigarren mailako eta ez ezinbesteko zeribat bezala ikusten duen iraganarengatik, hain zuzen ere.

sex KONTUAK



Gerritek

INFORMATIKA

info@gerritek.net www.gerritek.net
Txantxa-Zelai, 4-6. Tel. 943 03 38 92

**Marka guztietako zerbitzu
teknikoa eta salmenta**



**Neurrira egindako
software-aren garapena**

Ezteiak eta Jaunartzeak



Argazkia: Josu Torrealday

**UDABERRIAREKIN BATERA
ZATOZ GORPUTZA ETA AURPEGIA HOBETUKO DIZUTEN
GURE TRATAMENDU BERRIAK PROBATZERA!**

Lakett

- Estetika
- Masajea

Zezenbide, 4 www.lakett.com 943 53 00 66

Izadi
San Juan, 1
943 20 33 29



M A R S I



bidebarrieta, 1
943201626
639403457

Eguraldi onarekin batera ospakizunak areagotu egiten dira gure artean. Maiatzeko jaunartzeak gain-gainean ditugu; bestalde, jakina denez, bikote gehienek eguraldi ona egiten duen sasoiak aukeratzen dute euren ezkontzarako. Otorduak, bidaiak, jantziak, argazkiak, gonbidapen-txartelak, ilepaindegia, lore-sorta, eraztunak, haurrentzako opariak... Behar ditugun gauza guztiak eskuratzeko aukera zabala eta kalitatezkoa daukagu Eibarren.



GUBY
Guby Chica
J. Etxeberria, 4 Tel. 943 201 551



ROSANA
ILEAPAINDEGIA
943 120624
URKIZU PASEALEKUA, 7 - BEHEA



Bidebarrieta, 18
943 20 84 41
laguinda
arropak eta osagarriak



J. Salaberria
Bitxitegia
RELOJERIA
SALABERRIA
Errebal, 22
943 20 20 79



EZKONTZA tartak
eta
despedidetarako
(ENKARGUZ)
ANTXDON
DEGUSTAZIOA
T. ETXEBARRIA, 13
943 20 63 22



JAUNARTZERAKO ARROPAK

Jaunartzeak berez ekitaldi erlijiosoak badira ere, ezkontzetan gertatzen den bezala, ikusmin handiaz inguratuta ospatzen dira. Detaileak asko zaintzen dira eta ahalegin handia egiten da neska eta mutikoek ondo pasatzeko.

Jaunartzeetako jantzietan denboraldi guztietan akabera ederak, oihal suabeak eta delikatuak eta joskintza-keinuak ikusten ditugu, bai tailerretan neurrira eskuz egiten diren sorkuntzetan bai amaituta eros daitezkeen diseinuetan ere.

Aurtengo jantziek gauza asko dituzte antzekoak: detaile klasikoak, kalitate handiko oihalak (linua, seta edo tul bordatua), pastel koloreko gerrikoak, mahuka edo beso erromantikoak eta delikatuak –batez ere bolanteekin errematatuta doazenak eta vintage ikutua daukatenak–. Gerrikoak aurtengo kolekzio guztietan nagusituko dira.

Kolekzio gehienetan printzesa estiloko soinekoak ikusiko ditugu. “Imperio” mozketa dauzkaten modeloak ere aurkituko ditugu, gona oso delikatuekin, lazo edo lore itxura daukaten detaileekin eta ukondoraino doazen enkajedun bordatuak dituzten mahukekin. Orrazkerari dagokionez, diseinatzaileek ile soltea edo ile-motots luzea proposatzen dute, enkajedun edo loradun diadema edo banda batekin.

Mutikoendako jantziei dagokionez, berriz, betiko marinel jantziak alde batera utzi dituzte, eta korte modernoagoaren aldeko apostua egin dute diseinatzaileek: Bi edo hiru piezako jantziak ditugu aurten, ehundura desberdinak eta grisa edo beige tonalitateak nahastuz. Navy eragina detaile txikien bidez agertzen da (tul-sareak edo itsas izarrak, esate baterako).



NATUROPATIA ETA ESTETIKA
ALAI
• Aurpegi eta gorputz tratamenduak
• Laser depilazioa
• Mesoterapia
• Terapia natural alternatiboak
• Terapia ortomolekularra
• Cuanum
TXANDA HARTZEKO 943 20 85 14
Isabel Gómez
www.esteticaalai.com
facebook: alai terapias esteticas



Argazkia: Josu Torrealday

EZKONTZETAKO MUSIKA

Bizitzako une berezi guztietan bezala, ezkontza egunean ere musikak garrantzi handia izaten du. Bazkaldu edo afaldu osteko dantzaldiaren lehenengo abestiak pisu handia izaten du, eta horretatik gehienetan egun horretako protagonistak, ezkonkideak dira lehen abesti hau aukeratzen dutenak. Ezkonkideak gonbidatu guztien begien aurrean dantza egitera irtetzen dira, eta horrela dantzaldiari hasiera ematen zaio. Jendeak aukeratzen dituen estiloak anitzak dira. Hemen dituzue adibide batzuk:

Can't Help Falling In Love (Elvis Presley, 1961). Klasiko hau "Blue Hawaii" filmeko abestia da. XVIII. mendeko frantses melodia batean oinarritua dago.

Something (The Beatles, 1969). Estilo klasikoa maite dute nentzat abesti egokia. George Harrison-en kitarraren ikutuak momentu ahaztuezina lortu dezake. Frank Sinatrak esaten zuenez, inoiz idatzitako abestirik erromantikoenen zen eta 70. hamarkadan sarri interpretatu zuen.

You Are So Beautiful (Joe Cocker, 1974). Inoiz grabatutako abestirik erromantikoenetakoa. Dantzaldiari hasiera emateko abesti ezin hobea. Iraupena oso egokia da (2'34"), ez luze ez motz.



argazkileria estudio
WWW.JOSUTORREALDAY.COM
contacto@josutorrealday.com | 679950858

Azido hialuronikoko
ile-tratamendu berriak

Khôl Estilistak

Estaziño, 4 943 254776

fasprint
Inprimategia - Serigrafia

Aukera zabala ezkontza gonbidapenetan
eta papertegian orokorrean

fasprintei@yahoo.es
Ego Gain, 11 ac - EIBAR - Tel./Faxa: 943 20 16 13

Twins
Eibar

bidebarrieta, 8 • tel. 943 05 60 82

LIDE
GAZTE MODA
JAUNARTZE ETA
EZKONTZETARAKO JANTZIAK

T. ETXEBARRIA, 10
TEL. 943530956

RPS 246/14

kerala JORGE DE LA GARZA
www.estetikakerala.es
www.cosmeticadelbienestar.es

Urkizu, 11 solairuartera 943 53 05 25

Makillajea Etxean Bertan

Estetika Tratamenduak, Manikura, Depilazioak,
Emaztegaiendako BONO BEREZIA...

VALENCIAGA

Ospakizun
guztietarako
behar duzuna

Bidebarrieta, 12
943-202233



Roca
CALBETON, 16
-EIBAR-
TEL. 943 20 80 06

Ezkontza eta egun berezietan ZUREKIN!!



Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547

CAPI

www.capiestetica.es

Aurpegi tratamenduak

- Radiofrequentzia (zimurrak)
- Mesoterapia

**BETILE LUZAPENAK / LIFTING-A
GEL ATZAZKALAK
IA BETIRAKO MANIKURA
eta PEDIKURA**

LASER DEPILAZIOA **30€**
Hanka osoak + Izterondoak: 90€ zona bakoitza

GORPUTZ TRATAMENDUAK

TEKNIKAK:
Kabitazioa / Radiofrequentzia
Laser lipolitikoa / Presoterapia
Elektroestimulazioa / Mesoterapia

Solariuma

Powered by **BODY**



Ipini zaituz sasoi onean ...
... astero bakarrik 20 minutu eginez

94 465 75 77
www.bagoaz.com



bagoaz

Matienan gaude
Eibartik 10 minutura
(autopistan Abadiñoko irteera)

**BIDAIA PERTSONALIZATUAK
EZTEI BIDAIAK**

bidaiak

f bagoazbidaiak viajes



Argazkia: Josu Torrealday

Somebody To Love (Queen, 1976). Freddie Mercury-k idatzitako abestia gospelari eta Aretha Franklini omenaldia da. "Amodiorik ez badago bizitzak zentzua galtzen du", dio abestiaren letrak.

Only Yoo (Yazoo, 1982). 80. hamarkadako sintetizatzaileek ere utzi zituzten soinu gozoak. Alison Moyet abeslariaren soul ahotsa eta 70. hamarkadako Simon & Garfunkel-en influentzia duen melodia.

Sweetest Thing (U2, 1987). Filmeetan eta dokumentaletan sarritan entzun dugun abesti honetan Bonok bere emazteari barkamena eskatzen dio bere urtebetetze egunean lan egiteagatik. Bi bertsio guztiz desberdinak daude: The Joshua Tree-n agertzen dena (originala) eta rekopilatorio batentzako grabatu zena.

Lovesong (The Cure, 1989). 90. hamarkadako erromantikoena, ziurrenik. Robert Smith taldeko liderrak bere neska-lagunarentzat idatzi zuen ezkontz-opari gisa. 20 urte geroago, Adelek bertsio bat egin zuen.

Nothing Compares 2 U (Sinéad O'Connor, 1990). Bere neska-lagunarekin zuen harremana apurtu zuen musikari ezagun batentzako idatzi zuen abesti hau Princek. Aparteko gozotasuna biltzen dutentzat.

Human (The Killers, 2008). Dantza lotuarekin hasi beharrean gorputza mugitzeko gogo sortzen duen zerbaitekin hasi nahi duten bikoteentzat aproposa. Gainera abesti honekin gonbidatuak ere berehala hasiko dira dantzan. Aparteko kanta.

CASTANO
PELUQUEROS



f t

943 207047
Fermin Calbeton, 1

contacto@castanopeluqueros.es
www.castanopeluqueros.es



Argazkia: Josu Torrealdai

Someone Like You (Adele, 2011). Oso abesti hunkigarria. Betirako joan den amodio bati buruz hitzegiten du. Agian ezkontza baterako egokiena ez bada ere, oilo-ipurdia jartzen du pianoarekin soilik lagunduta dagoen kanta honek.

Urrutira joan gabe hemen ere baditugu momentu horretarako aproposak diren kantak; esate baterako, Benito Lertxundiren “Nire herriko neskatxa maite”.

EZKONDU AURREKO AGURRAK. IDEIAK.

Ezkondu aurreko agurrak bereziak izateko, asteburu osorako planak paregabeak dira: larunbata energia eta nerbioak xahutzeko, eta igandea erlaxatzeko, astea ondo hasi ahal izateko.

Adrenalina askatzeko jarduera ugari dira. Talde handia elkar-tzen bada, Paintballa aukera bikaina da. Taldea txikiagoa bada, ordea, bada beste aukerarik. Shopping eguna, raftinga, puentinga edo erorketa askea interesgarriak izan litzateke. Erlaxatzeko, beste alde batetik, eguna Spa batean pasa daiteke, edo, bestela, palomitat eta film edo telesailen baten maratonia dago aukeran.

Asteburu osoa etxetik kanpo pasatzea nahiago bada guztiz deskonektatu ahal izateko, ordea, badaude hainbat aukera. Furgoneta edo autokarabana alokatu eta Euskal Herriko txoko politenetara bidaia daiteke: Mezkiritz herri nafartarra, Urbasa, Irati, Araitz... Edo bestela betidanik bisitatu nahi izan den munduko lekura bidaiatu daiteke: Eskozia, Kroazia, Indonesia...



Bidebarrieta, 28
943 20 79 73

Ezkontzetarako tartak eta opariak prestatzen ditugu

www.kantabriajartetxea.com
kantabria@kantabriajartetxea.com

 Arrate Gaina, 4
 279 Postakutxa
 20600 EIBAR
 Tel. 943 121 262

EZKONTZAK
BATAIOAK
JAUNARTZEAK

RESTAURANTE KANTABRIA
KANTABRIA JARTETXEA

Benetako adituak gara

KRUZEROETAN

horri esker aurretik goaz eskaintzan...

IBILBIDE ESKLUSIBOAK

HEGALDIA DOAN
Fiordoak, Baltikoa eta Mediterraneoa

HOTEL GAU EXTRA DOAN
Venezian

DENA BARNE DOAN

B the travel brand **AHOLKULARI PERTSONALA** ontzian

bthetravelbrand.com | 902 200 400
Kontakturako

Julián Etxebarria, 11 | 943 849 005 | EIBAR

Barceló
WUJES
evoluciona a

B the travel brand

AIZKIBEL, 10
- AZKOITIA -
943-853412

Joseba
JATETXEA



josebajatetxea@hotmail.com

**2016 ezkontzetan
SORPRESATXO bat** *Zaloz
informatzera!*

AZKOITIKO bihotzean, Joseba Jatetxea zuen esku era guztietako **EZKONTZAK** eskainiz, 55€tik hasita. **ZUEN ZAIN GAUDE!**

MARRODAN

**BITXITEGIA
ERLOJUDENDA**



T. Etxebarria, 24

Tel. 943 20 73 04



El jardín de tulipa
FLOWERS&DECO

El Corte Ingles-em

943 20 88 47
645 67 85 76



MABE
Bidebarrieta, 1
943 20 15 80



Argazkia: Josu Torrealday

Zer egin eta zer ez egin. AHOLKU BATZUK

Egin

- Ezkontza pertsonala antolatu: gustoko duzuen janari, edari eta adornuak erabili. Gustorago egongo zarete ezagutzen duzen ingurugiro batean: hobe da giro atsegina oso dotorea baino.
- Soinekoa edo trajea eta zapatak erabili ezkontzaren aurreko egunetan, jantzieta egoten ohitzeko. Horrela, deserosoa bada, konpontzeko aukera bada.
- Ezkontza bukatzean esker-mezu txartelak bidali gonbidatuei; zuekin egun berezi hau paratektu dutenei eskerra emateko modu txukuna da.

Ez egin

- Ez ahaztu egunean zehar jateaz, eta ez bazkari edo afarian soilik. Egun estresagarria izango da, eta indarrak beharko dituzue jardunaldia ondo amaitu ahal izateko.
- Ez eman eguna sare sozialetan argazkiak eta detaileak igotzen. Horretarako izango duzue denbora aske hurrengo egunetan.
- Ez larritu. Prest egon zerbait gaizki joateko aukeraren aurrean, baina gogoratu ezer ez dela hain garrantzitsua egun berezi hau zapuzteko.

Hache
- 44TIK GORAKO TALLAK -
Zuloagatarren kalea 7, Eibar facebook.com/hacheeibar



Menditik jaitsi gabe pasatzeko hilabetea

“Jeff Lowe’s Metanoia” mendi-filmeko irudia.

Apirila osoa betetzeko egitaraua prestatu du oraingoan Eibarko Klub Deportiboko mendi batzordeak. Iaz hasitako bidetik, orduan astebete hartu zuen programazioa hazi egin da aurten eta apirilko martitzen eta eguenean mendiarekin lotutako hainbat izango dira. Estilo bateko zein besteko ekitaldi guztiak arratsaldeko 19:00etan hasiko dira.

Horrela, datorren asteko eguenean, hilaren 7an, **Gotzon Irazolak “Euskal mendietan bide berrien bila” hitzaldia** eskainiko du euskeraz Portaleko areto nagusian. Azken urteotan Euskal Herriko mendietako bitxikeria, txoko eder eta erronka berrien bila dabil mendizalea eta bere zaletasunen berri aurki dezakegu <http://giroa.blogspot.com> blogean.

Hilaren 12an, martitzenean, **barrita energetikoei buruzko sukaldaritza tailerra eskainiko du euskeraz Zalao Otadui eibartarrak** Klub Deportiboan. Barrita horiek mendian eta eskaladan zein praktikoak diren jakinda, ematen diguten energia egokia izateko *“barritak osagai integral eta kalitaztekoekin egiteak”* duen garrantzia azpimarratuko du. Eta ez hori bakarrik: egin ere, barrita ezberdinak egingo dituztelako, fruitu sikuak, aleak eta zerealak nahastuz, *“gero etxean bakoitzak bere gustokoena egitea zein erraza den ikusteaz aparte”*.

Hilaren 14an, eguenean, **Mikel Arrizabalaga hainbat komunikabidetako kolaboratzaileak “Mendizaletasuna eta euskaraz” hitzaldia** eskainiko du euskeraz Deporren. Gure inguruko mendizaletasunak izan duen proiektzio sozialaren bueltan jardungo du eta baita mendizaletasuna eta euskarari buruz. Mendia euskaraz bizi dugun galdetuko dio bere buruari eta, zalanztzak baino gehiago, berak uste du *“oraindik bide luzea ibili beharra dugula euskararen gailurra zapaltzeko”*.

Hilaren 19an, martitzenean, **Paco Olivak “Cocina en la montaña” sukaldaritza bigarren tailerra eskainiko du**, oraingo hau gazteleraz. Tailer horretan mendiko aktibitatei

teei ekin eta, behin vivac-a eginda, beste jardunaldi bati aurre egiteko organismoa zelan berreskuratu erakutsiko da. Badakigu beharko diren kaloriak aktibitatearen araberakoak izango direla (izan trekking-a, alpinismoa, eski-zeharkaldia...) eta urtaroak ere baduela bere garrantzia. Barazki gordinen, karbohidratoen eta hidratazioaren beharra azpimarratzeaz gain, tailerrean gari-kimuak zelan kultibatu ere erakutsiko da, *“edozein karbohidratoekin nahasteko mineral eta bitamina kopuru egokia dakarkigulako eta, horrez gain, oso gutxi pisatzen duelako”*.

Hilaren 21ean, eguenean, **Imanol Marrodán argazkilaria “Anboto” liburua aurkeztuko du** Portaleko areto nagusian. Hainbat urtetan egindako lanaren fruitua da publikazioa eta proiektuak artea eta natura jartzen ditu harremanetan gune horretako ikuspuntu ezberdinak eskaintzeko, beti ere *“Anbotoko alde misteriosuen eta ezezagunena gizakiaren aurretik islatuz”*.

Eta hilaren azken astean **Mendi-Tour Bilboko mendi film-jaialdiko onena** ekarriko digute Coliseora. **Martitzenean, hilaren 26an**, 9 minutu irauten duen *“55 hours in Mexico”* (euskeraz eta gazteleraz azpigitulaturatu), 37 minutuko *“Urzulo”* Bilboko jaialdiko euskerazko film onena eta 73 minutuko *“Jurek”* (euskeraz eta gazteleraz azpigitulaturatu) jaialdi bereko alpinismo film onena eskainiko dira. *“Urzulo”* Xanti Ugarteren lanak Euskal Herriko leku ezezagunak erakusten ditu, iluntasunean ere grabatutako irudi zailekin batera. Handik bi egunera (**eguenean, hilaren 28an**) beste bi pelikula eskainiko dira, biak ere euskeraz eta gazteleraz azpigitulaturatu: 40 minutuko *“A line across the sky”*, aipatutako Bilboko jaialdiko eskaladako film onena, eta 73 minutuko *“Jeff Lowe’s Metanoia”*, jaialdian ikuslegoaren Saria jaso zuena. Coliseoko pelikuletako sarrerak 5 euroko prezioa dute eta salgai daude dagoeneko interneten; Coliseoko txarteldegian ere lortu daitezke astelehenean (19:00-20:00) eta barixakuetan (21:00-22:00).



Mikel Arrizabalagak mendia eta euskarari buruz jardungo du. Zalao Otadui barrita energetikoak egiten erakutsiko du.





Deportiboko mendizaleen Aste Santua Cuencako mendilerroan

27 laguneko mendizale taldeak ondo baino hobeto aprobetxatu zituen bost eguneko Aste Santuko oporrak Cuencako mendilerroa egindako irtenaldian. Eibarko Klub Deportiboak antolatutako txangorako Tragaceten hartu zuten ostatu eta egunero etapa ezberdinei ekin zieten: egunean Agreda Haitzuloa izan zuten irteera eta helmuga, tartean 2.218 metroko Peña Negrillara igota; barixakuan Tragacetetik Jucar eta Cuervo ibaien iturbururaino joan ziren, San Felipetik (1.837 m.) pasatuta; zapatuan Uñatik Los Callejones eta Las Majadas-eraino joan ziren, 1.439 metroko Picón de Royo Frío gaintututa; domekan Carrascosatik Hoz Somera eta Tragavivoseraino joan zen mendizaleen taldea; eta astelehenean, azken egunean, Siguenzako Pelegrinatik Río Dulceren haitzarteraino joan ziren. Bost eguneko tarte horretan "eguraldia lagun" izan dute; hala ere, "La Negrillan izotz handia egin zuen eta haizea ere oso gogor ibili zen". Ohiturari jarraituta, Aberri Eguna "txanpainarekin ospatzeko" aukera ere izan zuten Deporrek mendizaleek.



Jone Gomez, Irati Martin eta Elene Molinak Euskal Herriko selekzioaren zutabea osatu dute.

Urbatek mailari eusteko lehia jokatu du Portugaleten

Bihar 16:00etan zirt edo zart egiteko neurrak izango du Urbat waterpolo taldeak Portugaleten bertako Nauticaren aurka. Izan ere, partidu hori irabazita jaitziera zuzena saihestuko dute Davide Cerchiren mutilek. Bestalde, Valladoliden Euskal Herriko selekzioarekin jokatu zuten infantil mailako bost eibartarrek bikain jardun zuten eta Jon Treviño, esaterako, torneoko golegile nagusia izan zen.

Zilarrezko domina bi Xuban Hoyos karatekarentzat

Donostiako arte martzialetako egoitzan jokatu zen infantil mailako Gipuzkoako karate txapelketa Xuban Hoyos eibartarrak zilarrezko domina irabazi zuen kumite lehiaketan eta baita kata espezialitatean, eta horrela Gipuzkoako azpitxapelkun geratu da. Lorpen handia, beraz, orain dela gutxi gerriko marroia eskuratu duen karatekarentzat.



*Koldo
(2014-IV-1)*

"Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak, burruka hortan iraungo duten zuhaitzardaska gazteak"

ZURE
LANKIDEAK

EBK EIBARKO BIZIKLETA

**TXIRRINDULARITZARAKO
GUZTIA (salmenta eta konponketa)**

BIZIKLETAK • ALDAGAILUAK • OSAGIAIK • ERROPA • OINETAKOAK

CANON
ENJOY THE RIDE

GIANT

SHIMANO

NW
NORTHWAVE

PowerBar

Andoni Retenaga
zure konfidantzagako mekanikaria
andoni@ciclalia.es

Karmen kalea, 4
943 530 212

ORDUTEGIA
astelehenetik ostiralera: 10-13/16-20 zapatuetan: 10-13

EIBAR izango da 56. Euskal Herriko Itzuliaren ARDATZ

Datorren astean, astelehenetik zapatara, jokatu den Euskal Herriko Itzuliaren 56. edizioak gure herrian izango ditu une erabakigarrienak. Azken urteetan beti egon da Arraten amaitzen zen etaparen bat. Aurten, berriz, Itzulia bera Eibarren amaitzeak indar berezia emango die gure errepideetan jokatu diren kilometroei. Aurreko urteetan laugarren etapa, eguenekoa, Arraten amaitzen bazen, oraingoan berriz barixakukoak izango du santutegia lekuko. Eta zapatuko erlojuz kontrakoa, 16 kilometro t'erdikoa, aurrez-aurre jarraitu ahal izango dugu, Eibartik irten gabe. Egun batean zein bestean, gainera, Arraterako igoera bereziet gozatu ahal izango dute zaletuek: barixakuan Matsariatik igoko dutelako eta zapatuan Azitaindik.

20 taldetako 160 txirrindulari, izen handiak tartean *Katusha* (Joaquin Rodriguez, Van den Broeck, Spilak), *Sky* (Landa, Hena), *Movistar* (Quintana, Jon Izagirre), *Orica* (Gerrans, Txurruka, Yates anaia), *BMC* (Samuel Sanchez, Atapuma), *Tinkoff* (Contador, Kreuziger), *Cannondale* (Rolland), *Ag2R* (Bakelants), *Lotto* (Galopin, Monfort), *FDJ* (Pinot), *Dimension Datta* (Anton), *Lampre* (Rui Costa), *Trek* (Mollema, Hesjedal, Schleck), *Etixx* (Martin), *Iam Cycling* (Clement), *Astana* (Aru), *Giant Alpecin* (Dumoulin, Bargull), *Jumbo* (Gesink), *Caja Rural* (Arroyo, Peio Bilbao), *Cofidis* (Navarro).



Itzuliaren lehen etapa Etxebarrian hasiko da hilaren 4an eta Markina-Xemeinen amaituko, 144 kilometro osatu eta gero. 3. mailako Gontzagaigana eta Santa Eufemiako gainak bitan pasatuko dituzte, 2. mailako San Miguel bezala (azkena helmugatik 7 kilometrora) eta behin pasatuko dira 2. mailako Azkaratetik eta 1. mailako Ixuatik (118. kilometroan, helmugatik 26ra, 16:20an gutxi gorabehera).

Martitzeneko, apirilaren 5eko, etapa Markina-Xemeinen hasi eta Amurrioko Garrastatxun izango du amaiera. 174 kilometroko lasterketa 3. mailako Untzella eta Mendeika gainetik pasatuko da, 2. mailako San Miguel, Kruzeta eta Garrastatxuko baselizatik batera. Azken horretan kokatuko da helmuga eta seguru hor indartsuenen aukeraketa egingo dela.

Eguaztenean Gasteizen hasiko da etapa eta, ia berrehun kilometro (193'5) bete eta gero, Lesakan amaituko. 3. mailako Uitz eta La Piedad gainekin batera, 2. mailako Usategieta, Aritxulegi eta Agiña gainditu beharko dituzte tropeleko txirrindulariek. Aipatutako La Piedad gaina izango da helmugatik gertuen, 9 kilometrora.

Laugarren etapak, eguenekoak, Lesakatik Oriora eramango ditu Euskal herriko Itzuliaren parte-hartzaileak, 165 kilometrotan. Hor Jaizkibel, 1. mailako gaina, izango da gainditu beharreko lehen mendatea. Gero 3. mailako Arkale eta 2. mailako Garateri ere egingo die aurre, ahaztu barik azken ediziotan hain ospetsu bihurtu den 2. mailako Aiakoa. Azken hau hirutan igoko dute eta Arizmendi base-ritik igo beharreko kilometro t'erdiko orma horrek %14tik gorako pendiza du, tarte batzuetan %28 gaindituta: behin hankak lurrean jarrita zaila izango zaie berririo bizikleta gainera igozteak. Hala ere, azken igoeratik helmugara arte 13 kilometro izango dira.




Barixakuko bosgarren etapak Oriotik Eibarrera ekarriko digu Itzulia, horko 159 kilometroak osatuta. Igo eta jaitsi, saltsa handiko etapa izaten da urtero, gustora ikusten den horietakoa. Horregatik, hainbat mendate gainditu behar izaten dituzte txirrindulariek Arratera heldu aurretik: oraingoan ere 3. mailako Kalbario eta 2. mailako Itziar, Karabieta, Kanpazar, Asentsio, Ixua eta San Miguel pasatuko dituzte 1. mailako Usartzakoa, helmugatik bi kilometrora, gainditu baino lehen. Gure herri-rik honako orduetan pasatuko dira txirrindulariak: Maltzagatik sartuta (104 kilometro helmugara), 14:20aren bueltan, Elgetaruntz abiatzeko; Maltzagatik berriro ere (41 kilometro helmugara), 15:55aren inguruan, Ixuaren bila; eta Maltzagatik hirugarrenez ere (10 kilometroren faltan), 16:40aren bueltan, Arrateko gaineruntz. Eibartik bigarrenez pasatzerakoan, Ixuara bidean, Matsariatik joko dute gora, porlanezko bi kilometroko bide estutik: batzabeste ia %15eko pendiza duen tarte horretan badira guneak %20 gainditzen dena. **Zapatuko erlojuz kontrakoa 16 kilometro t'erdia izango ditu.** Urkizuko iturri paretik irtenda, Azitaingo poligonora joko dute txirrindulariek Orbetik, Arrateko santutegiraino. Handik Eibarrera jaitziko dira errepidetik, Legarreko gurtebidea atzean laga eta Amañaruntz jotzeko, bariantearen bila. Tuneletik pasatuta, Matsariako poligonoa lagako dute eta, Estaziñoko irteera hartuta, Torbio Etxebarrian kokatutako helmugara joko dute. Lehen txirrindulariak 14:45ean hartuko du irteera eta azkenak 16:30ean (gutxi gorabehera).



Afizionatuen mailako txirrindulari onenak domeka goizean

Valenciaga Oroitzarrearen XLV. edizioa Untzagatik abiatuko da goizeko 08:55ean, martxa neutralizatuan Azitaineraino joateko eta han 09:00etan irteera ofiziala egiteko. Hortik Debaruntz joko dute txirrindulariek, han sprint berezia jokatu eta 3. mailako Itziarko gainaren bila. Jarraian 3. mailako Meagako mendatea gaindituko du tropelak eta Zarautzetik Eibarrera abiatuko da, aurretik Deban sprint berezia jokatu eta gero. Probako 84. kilometroan **Maltzagatik** sartuko dira eta **11:00ak bueltan** tarteko helmuga jokatu dute Azitain gasolindegian. Behin Eibartik pasatuta, 2. mailako Karabietako gainaren bila joango dira eta, Elgetatik Elorriora abiatu ondoren, handik bueltan 3. mailako Areitio gainera jaitsi eta oraingoan **Ermutik** sartuko dira berriro txirrindulariak Eibarren **12:00ak inguruan**. Probak 126 kilometro beteta, tarteko helmuga izango dute jokoan Kantoi gasolindegian Elgoibarreruntz joan aurretik. Han 2. mailako San Miguel mendatea gainditu eta Barinagatik 1. mailako **Ixuako gainari** ekingo diote (**12:30ak inguruan**) eta, handik jaitsita, **Armeria Eskolan** koka-




tutako helmugaren bila joango dira. Lehenengoek **12:50ean inguruan** izango dira Isasi gainean, 163 kilometroak bete ondoren.

Moises Artaxeberria

EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEKO PRESIDENTEA

“90 urte egiteak sortzen digun ILUSIOAREKIN jarraitzen dugu”



- Zelan sentitzen da aurten 90 urte betetzen dituen Eibarko Txirrindulari Elkarteak? Osasuntsu dago?

Ilusio handiz ekin diogu denboraldiari eta batzordekide berria ere badugu zuzendaritzan. 22 lankideko taldea osatzen dugu eta prest gaude beti jende gehiago hartzeko. Aurtengo denboraldian lau lasterketa antolatuko ditugu, aurrekontuak behartuta proba bat bertan behera laga ondoren. Bestalde, dirua ateratzeko antolatzen dugun udaberriko kontzertuaren zarpigarren edizioa izan dugu aurten. 90 urte betetzen ditugula-eta, Otxoa Memorialean garaikurra izango da eta San Juan Sarian Euskadiko txapela jokatu da.

- Valenciaga Oroitzarreara betiko bidetik joango da, afizionatu mailako estatuko talde onenekin?

Jakina, Espainiako Koparako baliagarriak diren zortzi probetako bat da gurea eta hemen izango ditugu txirrindularitzako promesa handienak. Helmuga Armeria Eskola parean izango da azken urteotan bezala eta, Eibarren presentzia gehiago izan dezan, proba birritan pasatuko da herritik.

- Laguntza beharko duzue horrelako probak antolatzeko. Jende nahiko izaten duzue?

Justu samar ibiltzen gara. Lasterketetako gurutzebideetan eta Kantabria eta Galizia Etxekoek laguntzen digute. Baina jendea adinean aurrera doa hor ere. Txistorra Egunean, 45 bat lagun dihardugu lanean.

- Federatuen txartelak ere tramitatzen dituzue. Zein egoera bizi dute herriko zikloturistek?

Federatuen kopuruak behera egin du: aurten 65 lagun federatu dira. Baina zikloturista gehiago daude, lizentzia atera barik etxeko aseguruaren koberturarekin dabilzanak. Xelebreak ere bagara Eibarren: gusto guztietako taldeetan biltzen direnak daude, gure elkartetik pasatzeko beharrik gabe.



Eibar Hiria Energia - Debabarrena Valenciagan izango da aurten ere

Juanjo Sebastian taldeko prestatzaileak nahiko lan izango du Eibarko probarako zarpikotea osatzeko: *“Zapatuan Lehendakari Txapelketarako baliagarria den proba dugu Zornotzan eta han ere izan beharko gara. Bederatzi txirrindulariekin dihardugu eta proba bietan egoteko nahiko lan izango dugu taldeak osatzen. Valenciagarako talde eibartarra aurkeztuko dugu: triatloian hain ondo dabilen Pello Osoro hor izango da, baita orain arteko probatan polito moldatzen diharduen Victor Cordon ermuarra ere... Txomin Osorok, gazteagoa denez, Zornotzan hartuko du parte seguruenik”*. Osoro anaiekin batera, Iker Goikoetxea, Imanol Martinez eta Pablo Zabala dira gure herriko ordezkariak Sebastianek zuzentzen duen Klub Deportiboko taldean.

Labetik atera berriko DVD-a

Bi orduko iraupena duen DVD-a kaleratuko du Eibarko Txirrindulari Elkarteak. Artxibo irudiekin osatutako lanean, Arraten bildutako Valenciagako irabazleen irudiak izango dira, elkarteke presidente izandakoei egindako detailtxoarekin batera. DVD-a herriko hainbat tabernetan jarriko da salgai.



XLV. VALENCIAGA OROITZARREA (apirilak 3)



GARAILEA



MENDIA



23 URTETIK AZPIKO ONENA



SAIATUENAREN SARIA



SPRINT BEREZIA



TARTEKO HELMUGAK



LEHEN EUSKALDUNA

TALDEKAKO SAILKAPENA: Eibarko Txirrindularitza Elkarte / DEBABARRENAKO ONENA: Goritz Hornikuntzak, S.A.

UDABERRI SARIA
otsailak 28OTXOA OROITZARREA
apirilak 10SAN JUAN SARI NAGUSIA
ekainak 19

PEDAL EGUNA (irailak 18): Birjiñape kafetegia

LAGUNTZAILEAK

- Eibarko Udala
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Udal Kirol Patronatua
- Radio Eibar
- Izadi Loradenda
- Zirauna (Kirol Jantziak)
- Birjiñape Kafetegia
- Ketesa
- Casa Cantabria
- Casa Galicia
- Gestilan - Aholkularitza
- El Corte Inglés - Eibar
- Goritz Hornikuntzak, S.A.

- Marqués de Saka Ganadutegia
- Azitain Jatetxea
- Mapfre
- DYA - Eibar
- S.C.R.G. Bide-Alde
- S.C.R.G. Kamarroak
- Trinkete Garagardotegia
- CDR-Bikes Eibar
- Andoni Retenaga (EBK-Eibarko Bizikleta)
- Pneumax
- Kantoi Zerbitzu Estazioa
- Oberena Harategia

- Ezpeleta Ehun-Ostalaritza
- El Castillo Hotela
- Perlakua Agroturismo-Jatetxea
- Kalitatea
- Asimair Kompresoreak
- Premier Bidaiak
- Guria Elektrizitatea
- Arkupe Gastro Pub
- Hotel Unzaga Plaza
- Avia
- Naia Car-Kia
- Larragest Inmobiliaria/Aseguruak
- Bista Eder Hortz-klinika



DIEGO CANTERO
("El Funambulista")

"Gure kontzertuetan abestiak biluztu egiten ditugu"

Bihar 22:00etan Coliseo antzokian aurkeztuko du El Funambulista-k "Quédate" diskoa zuzenean. Kontzertu akustikoa izango da: Diego Cantero abeslariak bakarrik pianoaren laguntza izango du. Lana 2014. urte amaieran argitaratu zuten eta ordutik dabilza aurkezpen jiran. Sarrerak 15 euro balio ditu eta Eibarren Birjiñape, Trinkete, Xania, Caserio eta Portalea tabernetan, Elgoibarren Lanbroan eta Ermuan Caperosen eros daiteke alde zurretik. Bestela, emanaldiaren aurretik leihatilan ere egongo dira salgai.

- "Quédate" lanaren aurkezpen jiran Tenerife edo Santiago de Compostela moduko hiri handietan ibili zarete kontzertuak ematen. Nolatan ailegatuko zarete bihar Eibarrera?

Ez dut sinesten hiri handirik edo txikiarik dagoenik, jendeak entzuten gaituen tokiak baizik. Geografia osoan zehar, han eta hemen ibiltzea gustatzen zaigu; hiri txiki bat izateak ez du esan nahi garrantzi gutxiago duenik.

- Euskal Herrian aurretik ibilitakoak zarete?

Ni aurretik ere ibilitakoa naiz. Lagun batzuekin elkartzen nintzen eta, nire gitarrarekin lagunduta, kontzertu asko

eman ditut. Beti egin didate harrera ona, jendeak oso ondo hartu nau beti. Eta hortik kanpora, eremu pertsonalean, bertako jendea apartekoa izan da nirekin.

- Karrera musikala hasi zenuenetik sare sozialak erabili dituzu beti zure musika argitarara emateko. Zerk bultzatu zintuen disko bat ateratzera?

Abestiak sare sozialetara igotzen hasi ginen ez genuelako nahi jendeak entzun ahal izateko bi edo hiru urte itxaroten egotea. Jendeak egiten ari ginena, zertan genbiltzan ikustea nahi genuen, zer pentsatzen zuten jakin eta, horrela, proiektua amaitzen laguntzeko aukera izateko.

- Zertaz hitz egiten dute zuen kantuek?

Bizitzaz, esperientziez... Gure musika gertatzen zaiguna arrazionalizatzeko aha-lerinaren ondorioa da.

- Zer esango zenieke kontzertura joan ala ez joan, oraindik zalantzan daudenei?

Ez dut uste jendea konbentzitzen ibili beharra dagoenik. Kontzertura joango denak ordu eta erdiko piano eta gitarra kontzertuaz gozatu ahal izango du. Abestiak biluztu egiten ditugu; konposatu ziren bezala erakusten ditugu. Ordu eta erdiko ihesbidea izango da. Beti da polita teatrorra joatea eta musikaz gozatzea.



Pozik aitxitxa-amamekin kantuan

Kaleetan Kantuz abesbatzaren eskutik Coliseoan egindako "Belau-naldien arteko topaketa" izenburuko kontzertuak primerako harrera izan zuen. Kaleetan Kantuzek bere bideari ekin ziola hamar urte bete dira eta, hori ospatzeko, San Jose egunerako emanaldi berezia prestatu zuten. Kontzertuan Barakaldoko Gitarra-ren Lagunek eta Juan Bautista Gisa-sola Musika Eskola-ko abesbatzak, akordeoi eta gitarra taldeek lagundu zioten abesbatzari.

Kultuko Bertso Astea

Apirilaren 8an, 21:00etan, Kultu tabernan izango den bertso afarirako tiketak salgai dituzte. Bertsolariak Sustrai Colina eta Agin Laburu izango dira eta gai jartzailea, Mikel Arrillaga. Bazkide eta langabetuek 20 euro ordaindu beharko dute, eta besteek 24 euro. Tiketak Kultun bertan eskura daitezke. Arrate Kultur Elkarteak Hankamotxak Bertso Eskolarekin batera antolatutako "Bertso Astea Kulturalean" ekitaldiaren barruan, bertso afariatz gain, tabernako saioa egingo dute aurretik, datorren aste-ko eguaztenean, 19:00etan hasita. Oihana Bartra, Asier Azpiroz eta Jokin Bergara bertsolariek jardungo dute eta gai jartzaileak Maddi Alberdi eta Maier Fernandez izango dira.



Itzamna poesia tailerra Donostia 2016an

Maite Lorenzok gidatzen duen Itzamna poesia tailerreko kideak "Donostia 2016" egitasmoaren barruan egingo den "Poesiaren Ibilbidean" parte hartzen egongo dira bihar. Goizeko 11:30ean abiatuko da poesia-ibilbidea, Easo Plazako kioskotik, eta hiriburuko 11 toki esanguratsutan gelditzen joango dira, Esther Ferrer-en eskutik olerkiak errezipitatzeko. Poesia tailerrekoek hitzordua ilusio handiarekin prestatzen dihardute eta kalerik kale errezipitatzeko esperientziari oso positiboa irizten diote.



Eguen Zuriko argazkiak Topalekuan



Aurreko asteko eguaztenezan banatu zituzten Arrate Kultur Elkarteak antolatutako XIX. Eguen Zuri Argazki lehiaketako sariak Topalekuan: lehena Oscar Blanco Gutierrezek jaso zuen, "Es carnaval" izenburuko argazkiarekin; bigarrena Pedro Arriolak, "Kale begiradak II" izenburukoarekin; eta hirugarrena Jose Luis Irigoienek. Sariak banatzearekin batera, domekara arte ikusgai egongo den erakusketa inauguratu zuten, nahi duenak saritutako lanak zein lehiaketara aurkeztutako beste argazki batzuk ikusteko aukera izan dezan. Tabernatik sartuta, erakusketa egun osoan dago zabalik.

Festa arabiarra gaztelekuan

Aste Santuko oporrak amaitzean daude eta, jai egunei agur esateko, zapa-arratsalderako festa arabiarra antolatu dute Indianokua gaztelekuan. Arduradunek aurreratu digutenez, "henna-rekin marrazkiak egin eta tea prestatu eta hartzeko asmoa daukagu, besteak beste".



Irigoienen argazkiak Segovian

Gaurtik hasita eta hilaren 15era arte Jose Luis Irigoien-en argazki erakusketa egongo da ikusgai Segovian, Plaza Nagusitik gertu, alde zaharreko tabernak pilotzen dituen Santana tabernan. Irigoienen ohiko estilotik aldentzen diren argazkiekin osatutako erakusketan 35 biluzi batu ditu argazkilariak, "denak digitalak, Hannemhule papelean inprimatuak eta Epson K3 tintarekin, kalitate eta iraupen handiko argazkiak izateko eginak".



Erraketisten erakusketa amaitzean

Domekara arte egongo da ikusgai "Erraketistak: gure aintzindariak gogoan" erakusketa Portalean. 1920. urte inguruan emakumezkoen kirolean aitzindari izateagatik omenaldi gisara antolatu duten erakusketan hainbat argazki eta ikusentzuzko bildu dituzte, "genero-estereotipoak apurtuta emakume kirolarientzat erreferente bihurtu ziren emakume haiek, euretako asko eibartarrak" nortzuk izan ziren ezagutzera emateko. 18:30etik 20:30era zabalduko dute.

Zine-foruma, gaur 19:00etan

Pagatxa emakumeen elkarteak antolatuta, gaur 19:00etan zine-foruma egingo da Portalean, areto



nagusian, "La voz dormida" (Benito Zambrano, 2011), Espainiako Gerra Zibilaren osteko sasoiaren giroa filmarekin. Pelikula amaitu eta jarraian hasiko den solasaldia Izaskun Rodriguez Elkorok gidatuko du eta sarrera doan izango da.



Sostoaren kontzertu ederra Karmelitan

Urteroko martxan, Sostoa abesbatzak Aste Santua baino lehen kontzertu sakroa eman zuen Karmengo Amaren elizan, abesti erlijiosoek osatutako egitarauari jarraituta eta Mari Karmen Etxebarriak eta Isabel Laspiurrek pianoarekin lagunduta.

Ipuin kontalaria Haur Liburuaren Egunean

Bihar, zapatua, ospatuko da Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna eta, horren aitzakiarekin, ipuin kontalari saioa antolatu dute liburutegian: 18:00etatik aurrera "Isilka misilka, isiltasanaren zaindaria" ipuina kontatuko du **Maite Frankok** umeen liburutegian. Sarrera doan izango da eta kontakizuna hiru urtetik gorako umeentzat pentsatuta dago.

Bestalde, bihar abiatuko da "Li(buru-hausgarriak)" irakurketa eta ikerketa bateratzen dituen lehiaketa edo jokoa. Lehen Hezkuntzako 2. mailatik gorakoek har de-


zakete parte, "oso modu errazean. *Liburuak irakurri eta gero, galdera batzuei erantzunez buru-hausgarri baterako piezak eskuratzen joango dira irakurleak. Kontua da puzzlean agertzen den irudia zeri dagokion asmatzea*". Liburutegiak apirilerako prestatu dituen jarduerekin jarraituta, hilaren 22an "Ez da magia, errealitate areagotua da" tailerra egingo da eta, horri esker, 5 eta 8 urte bitarteko haurrek errealitate areagotua erabiltzen duten liburuetara gerturatzeko aukera izango dute, "marrakzi batzuk eginda horiek 3Dn



ikusiko dituzte eta". Eta hilero bezala, apirileko azken zapatuan "Pirata Garrapataren abenturak" ipuin kontakizuna hartuko du liburutegiak.

Harixa Emoten Lander Garroekin

Martitzenean, Portalean 19:00etan hasiko den Harixa Emoten literatur tertulian, Lander Garro (Orereta, 1975) idazleak hartuko du parte, "Gerra txikia" (Susa, 2014) bere liburuari buruzko solasaldian. 1983ko urriko goiz batean trena hartu eta Hendaiara, errefuxiatua den aitarekin bat egitera doazen hiru seme-alaben



eta inguraten dituenaren istorioa kontatzen duen nobela abenturak eta garai krudelen oroitzenak, biek bat egiten dute eta horretaz idazlearekin mintzatzeko aukera izango dute irakurleek.



Bertso bazkaria Legarren

Legarreko jai batzordekoek antolatuta, apirilaren 30ean bertso bazkaria egingo da Legarre Gain elkartean Jokin Bergara eta Manu Goiogana bertsolariarekin. Gaiak jartzen, berriz, Maddi Alberdik jardungo du. Menua honako hau izango da: patatak saltsa berdean, oilasko errea, pas-

tela eta kafea eta kopa. Txartelak apirilaren 6an ipiniko dituzte salgai, Legarre-Gaineko Bolintxo okindegian eta Legarre beheko frutadendan (20 eurotan helduentzat eta 10 eurotan umeentzat). Joan nahi duenak apirilaren 25a baino lehen erosi beharko du txartela.



The Vartools, Montgorock lehiaketarako boto bila

The Vartools talde eibartarra Montgorock banden lehiaketan parte hartzeko aukeratu dute: 30 talderen artean bozka gehien eskuratzen duten hiru taldeak baino ez dira finalerako sailkatuko eta, horregatik, eibartarrek Xábian (Alicanten) egingo den jaialdian Loquillo, Los Zigarros, Arizona Baby eta beste talde batzuekin batera joteko aukera izan dezaten, ahalik eta boto gehien eskuratu nahi dute. Botoa emateko www.montgorock.es/concurso3 helbidean sartu eta The Vartools taldearen bideoan "Atsegin dut" eman behar da (azken eguna gaur da). Finalera ailegatzeari lortuz gero, The Vartools-en Facebook orriko esteka partekatzen duten guztien artean zozketa egingo dute eta irabazleak taldearekin batera jaialdira bidaiatzeko aukera izango du.

Valenciaga argazki lehiaketa

Apirilaren 3an jokatu den Valenciaga Oroitarrearen harira argazki lehiaketa egingo da txirrindularitza proba horretako argazkiekin. Lehiaketara aurkezten diren lanak euskarri digitalean egon beharko dira, zuri-beltzean zein koloretan. Parte-hartzaile bakoitzak beste lehiaketaren batean sarituak izan ez diren 3 argazki osatutako bilduma bat aurkeztu ahal izango du, gehienez ere. Maiatzaren 3ra arte onartuko dituzte lanak, Eibarko Txirrindulari Elkartean (Pagaegi, 3 behean). Bildumarik onenari saria 300 eurokoa izango da eta argazki onenak 100 euroko saria jasoko du. Informazio gehiagorako cce@clubciclistaeibarres.org helbidera idatzi daiteke.





“Running & Festa” erakusketa Azpeitian

Slehen argazki bilduma ikusgai ipini dute Sanagustin kulturunean (Plaza Nagusia, 5 behean), Azpeitiko argazki elkartearen laguntzarekin prestatu duten "Running & Festa" izenburuko erakusketa. Erakusketa 1996tik 2015era bitarteko irudiak batu dituzte, Iñaki Etxenagusia, Juan Mari Ibarzabal, Valen Garcia, Alberto Beloki, Juan Joxe Agirre, Angel Olabarria eta Gorka Arregi argazkilariek eginak.



Vendetta-ren kontzertua Arrasaten

Vendetta taldeak apirilaren 7an (eguna) Arrasaten kontzertua emango du, Kamikaze Tour gaztetxe biraren barruan. Hortik aurrera, apirila osoan gaztetxerik gaztetxe ibiliko dira euren musika zuzeneko emanaldietan ezagutzera ematen.



Ermuko Irulitxak 20 urte

Datorren asteko barixakuan (apirilaren 8an) hasiko dira Ermuko Irulitxak txarangaren 20. urteurrena ospatzen eta, hori dela eta, asteburu osorako kalejirak eta kontzertuak prestatu dituzte Orbe kardenalaren plaza eta inguruko gunek musikaz betetzeko.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Iñaki Alberdi Iburguren. 64 urte. 2016-III-18.
- Soledad Marzana Amuategi. 90 urte. 2016-III-19.
- Miren Alberdi Unanue. 88 urte. 2016-III-20.
- Edurne Paredero Ogara. 90 urte. 2016-III-21.
- Juliana Baceta Sarraoa. 95 urte. 2016-III-22.
- Clementina Fernandez Del Castillo. 90 urte. 2016-III-23.
- Juana Del Rivero Sanchez. 92 urte. 2016-III-23.
- Carmelo Ariño Bilbao. 88 urte. 2016-III-26.
- Casilda Alberdi Otalora. 59 urte. 2016-III-26.
- Jose Antonio Pagei Abaitua. 75 urte. 2016-III-28.
- M^a Carmen Pereira Souto. 63 urte. 2016-III-28.
- Arantza Larrañaga Iureta. 84 urte. 2016-III-30.
- Iñaki Astigarraga Bergara. 87 urte. 2016-III-30.

jaiotakoak

- Farok Benamar. 2016-III-18.
- Ayoub El Ayadi. 2016-III-21.
- Garazi Valladares Iglesias. 2016-III-21.
- Luca Bravo White. 2016-III-22.
- Manex Barandiaren Alberdi. 2016-III-22.
- Olaia Fernandez Quintana. 2016-III-27.

farmaziak

- Barixakua 1
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Zapatua 2
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Domeka 3
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
- Astelehena 4
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- Martizena 5
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Eguaztena 6
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Eguena 7
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
- Barixakua 8
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)

GAUEZ BETI - 2016AN-
 Iraundegi (Calbeton, 19)

SUDOKUA

3	2			6				
5		9				4		
4			2	7				
					6	1		8
9	8						3	7
1		3	8					
				2	3			9
		4				5		1
				4			8	6

5	2	1	4	3	7	6	8	9
4	3	8	2	9	6	7	5	1
6	9	7	1	8	5	3	2	4
2	8	9	6	1	4	5	3	7
1	5	4	7	2	3	8	9	6
7	6	3	8	5	9	1	4	2
8	4	2	5	6	1	9	7	3
9	7	6	3	4	8	2	1	5
3	1	5	9	7	2	4	6	8

AURREKOAREN
 EMAITZA

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 1

ZINE-FORUMA

19:00. "La voz dormida", Izaskun Rodriguez Elkorok gidatuta. Portalean (areto nagusian).

Zapatua 2

LIBURU SINAKETA

12:00. Tea Stilton-en liburu sinaketa. El Corte Inglesean (3. solairuan).

IPIUIN KONTALARIA

18:00. Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna: "Isilka misilka, isiltasunaren zaindaria", Maite Francoren eskutik. Juan San Martin liburutegian.

ESKULANAK

18:00. Oroimena lantzeko jokia (izen-ematea liburu sailean). El Corte Inglesean (3. solairuan).

KONTZERTUA

22:00. Funambulista taldea. 15 euro. Coliseoan.

Domeka 3

TXIRRINDULARITZA

09:00. XLV. Valentziaga Oroitzarrea. Azitaindik hasita. Helmuga Armeria eskolan 12:50k inguruan.

EIBAR-EN PEÑEN BILKETA

11:30. Txosnaren irekiera Txaltxa-Zelaian.

12:00. Trikipoteoa, Ustekabe txarangarekin.

14:50. Bazkaria.

17:15. Familia-argazkia.

Martitzena 5

IKASTEN

16:00. Puntu-tailerra.

17:00. Joskintza tailerra. Portalean.

HARIXA EMOTEN

19:00. Literatur tertulia: "Gerra txikia", Lander Garro egilearekin. Portalean.

IRAKURKETA KLUBA

18:00. Gaztelerazko irakurketa kluba: "La felicidad desesperadamente" (André Comte-Sponville). Juan San Martin liburutegian.

Eguaztena 6

BERTSOAK

19:00. Tabernako saioa, Oihana Bartra, Asier Azpiroz eta Jokin Bergara bertsolariekin. Kultu tabernan.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizan.

HITZALDIA

19:30. "Laserra oinkatzea eta bizikletan daramazun posizioa zuzentzeko". Hizlariak: Poliklinika Gipuzkoako Guadalupe Izquierdo eta Toni Martinez (Oinaren unitatekoak) eta Garikoitz Etxebeste (Txirrindularien Biomekanikaren Unitatekoa). Portalean.

Eguena 7

LIBURU AURKEZPENA

19:00. Jesus Gutierrezek Eibar Foball Taldearen 75. urteurrenaren inguruan idatzitako liburuaren aurkezpena. Coliseoan.

HITZALDIA

19:00. "Euskal Mendietan Bide Berrien Bila", Gotzon Irazolaren eskutik. Portalean.

BILERA

19:00. Kaleratzeak Stop Debabarrenaren bilera irekia. Portalean (3. solairuan).

KALEETAN KANTUZ

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizan.



Erakusketak

Apirilaren 3ra arte: "Erraketistak: gure aitzindariak gogoan" (**Portalean**)
Eguen Zuri Argazki Lehiaketako lanak (**Topalekuan**)

Apirilaren 4tik 30era: "Andrak eta errepublika" (**Juan San Martin liburutegian**)

Apirilaren 7tik 30era: "ADECAP Elkarrekin 25 urte". (**Armagintzaren Museoa**)

2016ko abendura arte: Jose Luis Apraizen arma-bilduma. (**Armagintzaren Museoa**)


Lehiaketak

Txikitto! hilabetekariaren irudi berria. Norentzat: Eibarko LH-ko 5. eta 6. mailetako ikasleentzat. Gaia Txikitto! aldizkaria irudikatuko duen irudia izango da. Saria: Tablet bat. Lanak entregatzea eta informazioa: **apirilaren 12an baino lehen**, ...eta kitto!-n (Urkizu, 11 solairuarekin / 943200918 telefonoan).


"Valenciaga Oroitzarrea" argazki lehiaketa. Lanak aurkeztea: **maiatzaren 3ra arte**, Eibarko Txirrindulari Elkartean (Pagaegi, 3 behean). Informazio gehiagorako: cce@clubciclistaeibarres.org helbidera idatzi.

"Sanjuanak Eibarren" kartel-lehiaketa eta Alkohol larregi edatearen kontrako pegatina lehiaketa. Informazioa eta lanak aurkeztea: **maiatzaren 6ra arte**, Pegoran.


Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurra etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, JONE, hiru urte daroiazuz -eta gure bizitzak alaitzen. Muxu haundi bat gure printzesarentzat, famelixaren partez.



Zorionak, MARIA, gure etxeko printzesak aurreko zapatuan bost urte bete zittuan-eta. Patxo mordua famelixa guztiaren partez.



Zorionak, NORA, printzesa martxuaren 25ian zazpi urte egin zenduazten-eta. Muxu haundi bat etxeko danon partez.



Zorionak, MADDI, hillaren 5ian gure printzesak 10 urte beteko diitu-eta. Ondo pasa! Patxuak famelixaren partez.



Zorionak, HELENE, poxpolintxo, domekan lau urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Nahiaren partez.



Zorionak, UNAX, gure etxeko txikixak urtetxua egingo dau-eta hillaren 4an. Etxekuen eta, batez be, Markel eta Beñaten partez.




Zorionak, MARKEL, martitzenian 10 urte bete zenduazelako. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, LUKEN, martxuaren 19xan lau urte bete zenduazten-eta. Muxu haundi bat gure etxeko erregiari.



Zorionak, JONE Arritiketa. Gaur bederatzia urte.. Besarkada eta muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, IMANOL, eguaztenian urtiak bete zenduazten-eta. Ondo-ondo ospatu!



Zorionak, IRAI, hillaren 26xan urtetxua bete zenduan-eta! Famelixa guztiaren partez!

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)


2an: 17.00, 19:45, 22:30

3an: 17.00, 20.00 (antzokian)

4an: 20:30 (antzokian)

"Altamira"

Zuzendaria: Hugh Hudson



(2 ARETOAN)

2an: 19:45, 22:30

3an: 17:00, 20.00

4an: 20:30

"Orgullo+Prejuicio+Zombis"

Zuzendaria: Burr Steers



(1 ARETOAN)


2an: 17:00 (2 aretoan)

3an: 20.00

4an: 20:30

"Calle Cloverfield 10"

Zuzendaria: Dan Trachtenberg



(ANTZOKIAN)

3an: 17:00

"Kung Fu Panda 3"

Zuzendaria: Jennifer Yuh



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Buhardilla salgai. Berriztuta. Tel. 634-453097.
- Amañan pisua salgai. 2 logela, egongela eta ganbara. Jantzita eta bizitzera sartzeko moduan. Kalefakzioa. Dena kanpora begira. Tel. 671-439939.
- Pisua salgai Ipuruako bolera ondoan. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Merke. Tel. 675-248806.

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 450-500 euro inguru ordaintzeko prest. Tel. 631-343232.
- Pisu txikia behar da Eibarren. Ahal denik eta arinen. Tel. 634-458275.
- Pisu txikia hartuko genuke errentan Eibarren edo inguruan. Tel. 602-674359.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Matsarian. 21.000 euro. Tel. 630-407207.
- Epe motzean, Elgoibarko Ilunpe taberna hartzeko prest dagoen norbaiten bila gabilzta. Tel. 943-254252 eta 645-599810.
- Taberna traspasatzen da Eibarren. Prezio onean. Tel. 628-235319.

3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Eibar erdialdean (Txomo eta Ardantza artean). Tel. 617-688311.
- Lokala alokagai Ubitxa inguruan, kalerako irteera zuzenarekin. Bulego, biltegi edo tailer txikiarendako aproposa. 70m²/150m². Tel. 617-688311.
- Marbxan dagoen ileapaindegia alokagai Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.
- Lokala alokagai Urkiko Polonia Etxebarrian. Gazteendako egokia. Tel. 688-803449.
- Garaje itxi handia alokagai, Urkizuko dorreen azpian. Tel. 649-977852. Mari Carmen.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Edozein ordutegitan. Tel. 637-071779.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Edozein ordutegitan. Tel. 661-001246.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta dendarari moduan. Orduka. Tel. 639-423493.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin eta nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere). Tel. 632-925362.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 690-064225.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 678-814941.
- Mutila eskaintzen da baserrietan lan egiteko. Tel. 622-702398.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-732847.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 662-012834.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-956574.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta beste edozein lan egiteko. Tel. 631-466742.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-562380.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-103811.
- Neska euskalduna eskaintzen da etxeko garbiketarako egin eta nagusiak zaintzeko. Tel. 943-744033 eta 637-102725.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 626-197217.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-220789.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 608-893250.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 631-466742.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 634-748531.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 10 urteko esperientzia. Tel. 671-897262. Rosi.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-911709.
- Gizona eskaintzen da etxeko lanak egin eta nagusiak zaintzeko. DYAKO soroslea eta Gerontologia titularekin. Tel. 662-638500.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 617-181350.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 744-403068.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu (baita gauzez ere) eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-832388 eta 633-808931.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 628-665395.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-776905.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 662-430951.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 681-065683.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-425686.
- Emakumea eskaintzen da era guztiak garbiketara lanak egiteko. Tel. 638-421827.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 687-362183.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-411705.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-466742.
- Mutila eskaintzen da asteburuetan orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 612-278600.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egin, nagusiak zaindu eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 632-329868.
- Neska eskaintzen da orduka nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-024132.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 635-143762.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-338816.

- Emakumea eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 658-458061.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 652-683273.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 631-488692.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta gida-baimenarekin. Tel. 695-701753.
- Gizonezkoa eskaintzen da arratsaldez edozein lan egiteko. Tel. 693-232959.
- Neska eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 606-906729.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Gida-baimenarekin. Tel. 689-571882.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Erizain-laguntzaile titularekin. Tel. 688-826968.
- Emakumea eskaintzen da goizez garbiketarako egin eta nagusiak zaintzeko. Erizain-laguntzailea. Erreferentziak. Tel. 616-607121.

4.2. Langile bila

- Pertsona bat behar da asteburuetan Amañako dastalekuan lan egiteko. Bidali curriculum-a: igorvazquez@hotmail.com
- Kamarera/o behar da Eibarko jatetxe bateko barra eta jantokian. Ezinbestekoa esperientzia izatea. Tel. 653-732537.
- Neska behar da umeak zaintzeko. Gidatzeko baimenarekin. Tel. 657-730602.
- Pertsona behar da garbiketara lanak egiteko. Beharrezkoak autoa eta gidatzeko baimena. Autonomo egin beharko da. Tel. 685-701034.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergoa eta partikularren azterketak prestatzeko klase intentsiboak ematen ditut. Tel. 685-939709.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- 0'90eko sukaldea salgai, gas-bonbonak eramatekoarekin. Baita 0'90eko ohe artikulatua ere. Berriak. Egoera onean dauden 16 buzoi opari. Tel. 617-688311.
- Bigarren eskuko bizikleta merkea erosiko nuke. Baita whatsapp bitartez ere. Tel. 645-722611.
- Sehaska salgai, koltxoirekin. la berria. 100 euro. Tel. 687-675484. Arantza.
- Egongelako alfombra handia salgai. Egoera onean. Merke. Tel. 606-882043.
- Solarium bertikala salgai, plataforma biratorioarekin. Tel. 619-679523.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Autorako GPS edo tantan-a aurkitu dut eta Udaltzaingoaan laga dut.

6.4. Bestelakoak

- Nire kabuz jazz-gitarra ikasten nabil. Lagunak behar ditut (gitarra edo beste instrumenturen bat) elkarrekin ikasteko. Tel. 649-088883.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eu

1. Gin Tonic lehiaketa

Apirilaren 15etik 17ra

Finala:
Apirilaren 22an
Untzaga plazan



Informazioa eta oinarriak:
etakitto.eus/berbetan
943 200918



etakitto.eus




zure elkarte edo taldearen
informazioa
zabaldu nahi duzu?

etakitto.eus webgunearen
KOMUNITATEA atalaren bidez egin dezakezu.

Jar zaitez gurekin harremanetan: komunikabideak@etakitto.eus



MONUMENTU ARTISTIKOA



LASA JATETXEA

**ERA GUZTIETAKO BANKETEAK
OSPATZEKO toki bikaina**



**250 LAGUNENDA KO
JANGELA**



Ozaeta Jauregia -BERGARA-
Tel. 943 76 10 55 Fax: 943 76 20 29



www.restaurantelasa.es